



ZUBIKOT
KIROLDEGIA



Kirolaren plan estrategikoa egingo du Udalak

Etxeetara banatu den inkestari erantzuteko deia egin du Ainhoa Martin kirol batzordeburuak

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

OÑATIKO AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
 - Kurtzekuan
 - Kasablankan
- 3 logela + garaio itxia (190.000€)

PREZIO BEREZIAK!!

* zabal informatza

Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

➔ Liburutegiko **BERRIAK**

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



HAUR LITERATURA
"Hau ezustekoa, haurtxo bat!"
Tarttalo.



GAZTE LIBURUA
"El libro que te explica todo sobre los padres"
Boucher, Françoise.



DVD Telesaila
"El tiempo entre costuras"



DVD dokumentala
"Guadalquivir"



DVD
"12 años de esclavitud"



KOMIKIA
"Los surcos del azar"
Paco Roca. Astiberri.



LIBURUA
"Herritarrekin: parte hartzeko esperientziak Gipuzkoan"
Imanol Azkue. Gipuzkoako Foru Aldundia

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 -13:00 / 16:30-20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 -19:30



TXALOKA LUDOTEKA

GAZTELEKUKO SOTOAN SORKUNTZA TAILERRA

MAIATZAREN 28AN

17:00-19:45



Jolasa baino gehiago!

GUTUNAK

Gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorlaren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Europar Batasun desberdin baterantz

Aitor Lizarralde (EHBildu)

Denok ezagutzen dugu inguruan larri dabilen norbait, lagunak, senideak, geu agian. Eta lana izanda ere geroz eta baldintza okerragoetan, asko eta asko.

Denok dakigu, esate baterako, hezkuntzan edo osasunean dagoen egoera: baliabideen falta, lan baldintza eskasak, lana ondo egin nahi eta ezin, ezin nahi bezala irakatsi eta zaindu.

EH Bildu beste eredu sozioekonomiko baten alde ari da lanean, denontzat, ez gutxi batzuentzat bakarrik. Justuagoa, berdina, lan banaketarekin, gehiengoaren mesedetan eginiko eredu fiskal batekin, lana sortuko duena eta ekonomiari egonkortasuna emango diona.

Urtetan zehar, eta azken urteotan gogorrago krisiaren aitzakiaren, gutxi batzuentzako Europa bat garatzen ari da eskuina. Baina hau ez dute soilik Rajoyk eta bere aurrekoek egin Madrileko gobernutik; eredu berbera eraikitzen jardun dute, gutxi batzuentzako Europa eskuindarra, UPN eta PNV Euskal Herrian ere.

Gatazkaren konponbideari eta bakearen eraikuntzari dagokionez, nazioarteko komunitatearen papera oso garrantzitsua da. Europar Batasunak ere protagonismo handiago hartu beharko luke. Gatazkaren konponbidea sustatu ahal izateko, datozen urteetan Bruselan izango dugun interlokuzioak indartzea ezinbestekoa izango da. Euskaldunok Europar Batasuneko hiritarrak garen heinean, euskal bakea afera europarra da eta.

Europar Batasunaren baitan, estaturik gabeko nazioen erabakitzeko eskubidea gai zentrala izango da 2014.urtean eta hurrengoetan. Eskozia eta Kataluniako prozesu soberanistek eragina izango dute Euskal Herria garatzen ari den askapen prozesuan.

Beraz, hurrengo urteetan aldaketa handiak gerta daitezke Europar Batasunean. Estatu berriak sortzeko ateak parez pare daude irekita. Neoliberalismoaren eskutik etorri diren eskubide eta askatasunen murrizketaren aro ilunari amaiera emateko aukera probestu behar dugu, ezkerreko

soberanistok defendatzen dugun Europa berri hori lortzeko pausu sendoak emanez.

Euskal Herriak ahots propioa izan behar du European ireki behar den prozesu eratzailean eta orokorrean, Herrien Europaren eraketan parte hartzeko. Horregatik, Oñatiko EHBilduk dei egiten du Maiatzaren 25ean hautestontzietan, herritar guztientzako jendarte eta Europa eraikitzeko ereduaren alde bozkatzera. Garrantzitsua da gure hitza European ordezkartuta egotea!!

OHAR ETA DEIALDIAK

► 1500€ Haitiko haurren alde

Txantxiku Ikastolaren Eguneko ekitaldiaren harira, bi elkartasun ekintza antolatuta zituzten. Batetik, tablet baten zozketa antolatu zuten, eta, bestetik, bidezko merkataritza denda zabaldu zuten Kale Barrian. Bi ekintza horien bidez, egin beharreko kitapenak egin eta gero, 1500€-ko etekin garbia atera da, eta diru kopuru hori Mari Carmen Markuleta oñatiarra Haitiko haurren alde garatzen ari den proiektura bideratuko da. Tabletaren zozketan saritua ateratako zenbakia 0802 izen zen eta Amaia Xperri egokitu zitzaion.



► Igeriketa zozketan saritua

Aloña Mendiko Igeriketa sailak urtero antolatzen duen zozketako saria (1001€) Urbiako fondakoei egokitu zaie. Apirilaren 12an egin zen zozketa eta 01147 izan zen zenbaki saritua, Loreria Nazionaleko azken lau zenbakiak alegia. Maddi eta Oier Alzelaik jaso zuten saria Juan Mari Iturrospe saileko idazkariaren eskutik.



► 1974an jaioetakoekin kinttadia

1974an jaioetakoek 40 urte beteko dituzte aurten, eta hori ospatzeko 'kintto eta kintta' bazkaria antolatu dute. Ekainaren 7an izango da, Soraluez ostatuan. Ekainaren 1a baino lehen eman behar da izena, 10€-ko diru-sarrera eginez, berme moduan, Labural Kutxa-ko 3035- 0005-35- 0051050373 kontu-zenbakian.



Etxe-Aundik zerbitzurik onena eskaini nahi dizu:

- Ezkontzak
- Asteburuko menu bereziak
- Enpresen harrera ekitaldiak

www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Bakea, Jaskin eta





UR ZIKINAK ESTOLDARA



Behin baino gahiagotan ikusi dot taberna edo etxeko bebarruak garbiketzen dituzten pertsona ur zikiñak estoldara botatzan. Nik dakidanez hori errekarara zuzenean doiaz. Beraz, komeniko zan abisu bat ematea herriari, holakorik ez gertatzeko.



Bai, estolderia horiek euri ura jasotzeko dira eta ezin daitezke ur zikiñak bertatik isuri. Jakinaraziko diegu herrian diharduten garbiketza enpresei eta udaltzainei. Mila esker!.

OÑARGI ETA GOIENER



Orain dela gutxi Goiener koooperatibari babesa ematen azaldu zen Udala. Nola ulertzen da hori, kontuan hartuz Oñargik diru-sarrera inportanteak ematen dituela urtero Oñatiko herriarentzat?



Oñargi energiaren enpresa banatzailea da eta Goiener aldiz energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba. Beraz, bi proiektuak osagarriak izan daitezke eta bata bestea indartu. Dena den, guk ez diogu inolako babesik eman Goienerri udal gisa, aztertu beharreko ekimen interesgarritzat ikusi dugu eta egon daitezkeen elkarlanerako esparruak aztertzeke prest gaude. Beti ere, oñatiarren mesedetan.

SAN PRUDENTZIOKO GELTOKIA



Oñati-San Prudentzio autobus zerbitzua martxan jarri zenean, San prudentzio bertan marquesina bat jarri zen autobus geltoki egokiagoa izateko asmotan (ez dakit zehazki nor jarri zuen edo Udalak edo Aldundiak). Izan ere, geltoki horren egoerak asko hobetzeko dauka. Lehenik eta behin, bertan ez dago ez pantaila informatiborik ezta autobusen ordutegirik eta askotan, eskua altxa behar izaten da autobusei bertan geldi daitezen adierazteko; despistaturik bazaude, autobusa galtzea oso erraza da. Bestalde, aipatzekoa da bertako galelekuak ez duela autoekiko inolako babesik eta auto batzuk abiadura desegokiarekin igarotzen dute bertako biribilgunea. Zoruaeren egoera ez da egokia, bereziki adineko jendearentzat edo elbarrituentzat. Bukatzeko, aipatzekoa da markesinako kristalak erabat puskatuta daudela eta inork ez dituela konpontzen. Ba al udalak aipatzen dudan guzti honen berri? Hura hobetzeko hartu al du neurririk?



San Prudentzion egokitutako autobus geltokia behin behinekoa da eta aldundiak jarri zuen. Gune hartan kamioientzako baskula bat jartzearen proiektua falta da oraindik eta ondoren geltokiaren behin betiko kokalekua atondu eta segurtasun baldintza osoetara jartzea. Aldundiarekin jarri gara harremanetan eta proiektuaren lanketan daude. Bitartean, barkatu zorraz ditzakeen eragozpenak.



Rehabilitaciones y Obras Kuber, S.L.





Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK




%30 diru-laguntzak

Irtenbide onenak isolamendu termiko sistemetan (SATE).

kuber@kuber.es
Tfap: 943 73 35 73
www.kuber.es

oposiziotik



Lourdes Idoiaga -EAJ

BABES OFIZIALEKO ETXEAK DEFENDATUZ

2006ko ekainean onartu zen San Martingo Plan Partziala eta 2014ko otsailaren 27an, udalbatzak, EAJ-PNVren aurkako bozkekin, plan partzial horren aldaketarako Hirigintza Hitzarmena onartu zuen. Hitzarmen hori dela eta, 132 etxebizitza berri eraikiko dira, hau da, aurreikusita zeudenak baino 49 gehiago. Udal gobernua proposamenaren arabera, 132 etxebizitza horien prezioa VPOx1,7 izango litzateke eta beraz, etxebizitzek batzaz beste 220.000€ balioko lukete.

Aldiz, EAJ-PNVk egindako proposamenaren arabera, araudia betetzeaz gain, eraikiko diren 49 etxebizitza gehigarri horietatik %65ak, hau da 32, babes ofizialeko etxebizitzak (VPO) izan beharko lukete, batzaz beste 130.000€tako salneurriarekin, eta gainerako 100 etxebizitzak, VPOx1,7koak izango lirateke hitzarmenean zehaztutako prezioaren arabera.

Herritarrek batzaz beste 90.000€ gutxiago ordaintzeko eskubidea izan dezaten bermatu nahi dugu, babes ofizialeko 32 etxe horiek aldarrikatuz.


Hortaz, eta iragarri dugun modura, alegazioa aurkeztuko diogu aipatu plan partzialaren aldatetari, legezkotasunaren eta oñatjarren eskubide eta interesen defentsan. Zehazki, herritarrek batzaz beste 90.000€ gutxiago ordaintzeko eskubidea izan dezaten bermatu nahi dugu, babes ofizialeko 32 etxebizitza horiek aldarrikatuz.

Gure proposamena txosten teknikoetan dago oinarrituta eta otsailaren 27ko udalbatza aurretik, eta gardentasun osoz, Udal Gobernuari helarazi genion aipatu proposamena. Aitzitik, gobernuak gure planteamendua atzera bota zuen. Arrazoi honengatik, eta gobernuak hartutako erabakiak aplikatu beharreko legedia betetzen ez duelako alegazioa aurkeztuko dugu.

Hori guztia esanda, San Martingo eraikuntza-enpresak babesten ditugula eta gure errespetu osoa dutela berretsi nahi dugu, enplegua sortzen eta bertako ekonomia sustatzen dutelako, horregatik uste dugu beren interesak defendatzea erabat legitimoa dela.

Azken batez, argi utzi nahi dugu gure helburua ez dela polemika antzurik sortzea, EAJ-PNVk oposizioko alderdi gisa dituen eginkizunak bete nahi ditu soilik, udal gobernuaren kudeaketa kontrolatuz eta beharrezkoa den kasuetan, kudeaketa txarra eta arau-haustek salatuz, hori baita gure betebeharra.

gobernutik



Mikel Biain - Bildu

ETXEBIZITZA HUTSAK ETA EZ OHIKOAK

Europako hainbat herrialdeetan, etxebizitza hutsen fenomenoak, **arazo larri** gisa ikusten da hirigintza, ekonomia, gizarte, nahiz ingurumen ikuspegitik, **eta etxearen jabetza eskubidea, interes publiko orokorrera egokitzeko neurri zuzenak hartzen dituzte estatuek.**

Gurean aldiz, bigarren etxebizitza bat jabetzan izatea ez da arraro egiten, nahiz eta kasu askotan etxe hori hutsik egon. Eta are gehiago, **bigarren etxea izateak status moduko bat ere aitortu izan du edo aitortzen du herritar askoren begietara.**

Goian aipatu bezala, **fenomeno honek** baditu ordea hainbat eragin eremu, eta **epe labur, ertain nahiz luzera desoreka garrantzitsuak sortzeko arriskua** dutenak.

Epe labur eta ertainean, etxebizitza eskubideari lotuta, merkatuaren logika nagusituz gehien daukanak, daukanaz baliatuz, **beharrean dagoenari kasu askotan aukerarik ere ez eskaintzea.**

Epe ertain luzera berriz, udal batek egin beharreko **lurralde antolamenduaren plangintzan eragin nabarmenak izan ditzake.** Muturreko adibide bat jartzearen: zer gertatuko litzateke Oñatik familia guztiek bigarren etxebizitza bat inbertsio gisa erostea erabakiko balute? Neurri gabe lurrak birkalifikatu beharko lirateke eskaria asetzeko. Horrek gure ingurumenean izango lukeen eragina izugarria litzateke, eta gainera okerrera, ez litzatekela herritarren behar bati erantzuteko.

Azken urteetan, adreiluak agindu du arrazoiaren gainetik eta gure herrian ere beste hainbat herritan bezala udal arduradunek, landa lurrak ziren milaka metro birkalifikatzeko bidea egin zuten.

Azken urteetan adreiluak agindu du arrazoiaren gainetik eta gure herrian ere, beste hainbat herritan bezala, udal arduradunek landa lurrak ziren milaka metro birkalifikatzeko bidea egin zuten

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012ko Uztailaren onarturiko arau foralaren bitartez, udalei aukera eman zien "ez ohiko" etxebizitzaren OHZ(IBM) ren gain errekarua ezarri ahal izateko. Etxe bizitza "hutsa"ren kontzeptuak juridikoki oraindik defizitorik ez duenez, Tokiko erakunden legeak onartu bezala, herriko bizilagunen erregistro administratiboaren arabera (errola) finkatzen da etxe bizitza bat "ohikoa" edo "ez ohikoa" den. Hau horrela izanik ere 12 salbuespen kasu onartu ziren aurreikusi litezkeen hainbat kasu erantzuna emateko.

Aipatu bezala, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga da horietako bat, udal zerga sistemaren baitan kokatzen dena eta eskubide errealek (nagusiki jabetza) grabatzen dituenak.

Nahiz eta zerga zuzen eta objektibo bat izan, Europako hainbat herrialdeetan zergaren elementu subjektiboetan eragiten dute administrazioek, "ez ohiko" erabilerei zerga tratamendu bereizia emanaz. **Helburua garbia da: etxebizitza bat hutsik edo "ez ohiko" erabilera izateak suposatzen duen "kostu publikoa" OHZ zergan islatzea. Salbuespenak salbuespen.**

Izan ere, **Fiskalitatea da erakunde publikoek interes orokorra defendatzeko duten baliabide nagusienetako bat.** Eta alde horretatik, arduradun politikook defendatzen dugun gizarte eredu garatu, nahiz egun duguna eraldatzeko baliatu behar dugu.

KOMUNIKAZIO-INKOMUNIKAZIO

Termibuseko geltokian nintzen takilako andreari txartela eman berri. Indiferentzia absolutoaren aurpegiarekin txartelean dirurik ez nuela eta kargatzeko agindu zidan. Bai agindu, txartelak kargatzeko makina behatzaz tirokatu nahi balu bezala. Hasieran andre baten antza hartu banion ere, bukaeran ulertu nuen hark ez zuela pertsonaren zantzurik. Bera ere makina bat zen eta nik bera pizteko dirurik ez nuen.

Zer den komunikazioa, bizitzaren aitortza, bizirik gaudenaren seinalea. Hitza, mugimendua. Senez, komunikatzeko beharra du gizakiak eta ulertua izateko beharra pertsonak. Bestela, nahiago ez izan.

Esango nuke gutako batetik bestera ideologiak ez duela salto haundiegirik ematen, ez behintzat garai hotan, baina ideiak hitz eta hitzak entzungai bilakatzeko prozesuan bada aldea, batzuetan amildegia.



Jone Arrazola



Ultrakomunikatuak bizi gara. Laztanak iada ez dira ezpaineikin ematen. Diruz ordaindutzen diren gailuetako tekla
sakatuta komunikatzen gara

Entzuten ikastea eta ulertzen saiatzea. Besteari nor dela aitortzea. Kafea aitzaki hutsa bihurtzen den lagunarteko tertuliei gure agendan tartea egitea. Hori, beste edozeri uko egiteko pisusko arrazoi izatea.

Barrez lehertzeko denbora hartzea. Besarkada eta muxuak errutinak ez lapurtzea. Hatzak langabeziara kondenatu duen mihari elkartasuna adieraztea. Elkartasunetik konpromisora.

Ultrakomunikatuak bizi gara, laztanak iada ez dira ezpaineikin ematen. Diruz ordaintzen diren gailuetako tekla sakatuta komunikatzen gara eta Egiptoarren alfabetoak eta Watsap enpresak ezarritako aurpegi iruditegiak antzutzen ditu gure arteko harremanak. Zer da ba urduritasuna, dardara eta izardi hotzik gabe? Zer haserratzeta hitzaren jariora azkartu gabe? Nola adierazi begiraden ustekabeko enkontrua? Ta benetako laztanen berotasuna?

Komunikazio- inkomunikazioan bizi gara.

ASTE SANTUKO ALA EGUBERRIKO OPORRAK

Askotan etorri zait burura ea orain arte Aste Santuko izenarekin ezagutu ditugun oporrrak aldaketa bat behar duen edo agian guk egun hauek bizitzen ditugun modua, liturgia edo folklorea aldatu behar ditugun.

Bakoitzak bere xedea bere erara bizitzeko eskubidea dauka, gehienok kristauak izan ala ez, kanpora irtetzeko aukera bat ikusten dugu. Ez dugu elizara joateko beharrik gure esperientzia espirituala beste modu batean gozatzeko. Bai, gozatu esan dut. Nire ustez, horretarako gaude bizi honetan, ahalik eta ondoen pasatzeko bizitzak ematen dizkigun aukerekin. Denok ditugu gorabeherak, momentu onak eta momentu txarrak. Aldea, agian, eguneroko bizitzako gauzei aurre egiteko dugun moduan dago.

Kanpoan izan naiz egun honeitan eta nire eguneroko komerierekin distantzia hartzea ondo etorri zait. Jende interesgarriarekin elkartu naiz, gauza asko ikasi ditut beraingandik eta benetako momentuak saiatu gara sortzen, bai nik eta nirekin etorritakoak.

Posible da bai beste era batera bizitzea, bai sentimenduak, konbikzio pertsonalak edo nahi duguna, ezin gara beti ezagutzen dugun lekuan geratu, kanpora atearzeak gogoetarako aukera paregabea eskaintzen digu eta honek beste ikuspegi bat ematen dizu.

Joan gaitezen beste portaerak, lekuak eta gendea ezagutzera, gure esperientziak, jakitura eta ikasteko gogoak konpartitzera eta lortzen dugun feedback-arekin, saiatu gaitezen gauzak beste ikuspegi batekin ikusten.



Iñaki Igartua



Aldaketak bakoitzaren baitan hasten dira. Bai politikarien eta elizgizonen portaerak ikusi eta gero argi eta garbi daukat ezin ditugula erreferentzi moral bezala hartu (berdin zait zein koloretakoak diren)

Orain arte ezagutu dugun sistema soziala eta eliza kolapsaturik daude, aire berriak behar ditugu eta ez dut uste orain arte lidertzat hartzen ditugun pertsonarekin lortuko dugunik.

Orokorrean marketin abilezian adituak dira, edozein ideia, produktu edo tramankulu saltzeko prest daude eta gai dira. Aipagarria da benetan elizaren azken trikimailua, bi aita santu desberdinen beatifikazioa eta emandako argudioak. Ez dakit zeinen ideia izan den baina, batzuk bizitza normala eramaten saiatzen garen bitartean, beste batzuek edozein beldurrezko historioak asmatzen igarotzen dute beraien denbora.

Aldaketak bakoitzaren baitan hasten dira, gure esku dago ditugun pentsamendu eta portaerak hobetzeko modua. Bai politikarien eta elizgizonen portaerak ikusi eta gero argi eta garbi daukat ezin ditugula erreferentzi moral bezala hartu (berdin zait zein koloretakoak diren)

Denak baitira, beraiei gustatu ala ez, berdinak. Askotan ahazten dute arazoen konponketak ez daukala zerikusirik ideologia, hizkuntza edo koloreekin, zentzuarekin eta gauzak ondo egiteko asmoarekin eta ikuspegi sozial zabalarekin baizik.

Bizitzak eskeinitako momentuak aprobetxatu egin behar ditugu, eta horregatik pozik eta bizipozarekin hartu behar ditugu.

Bada garaia, tontakeriak alde batera uzteko eta bizitzari aurre egiteko ikuspegi zabal eta apal batekin. Ez dakit Jainkoak nirekin bat egingo duen ala ez, baina hori beste kontu bat da.

EUSKARAREN ERABILERA HOBETZEA, BAI BENETAN GURE ESKU DAGOELA

Jose Luis Madinagoitia



Apirileko lehenengo astian Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunak aurkeztu ebein Euskeraren V. Mapa Soziolinguistikoa, 2011garren urtian batutako datuakin egindakoa da eta benetan itxura kezkarri batzuk azaltzen ditu.

Euskerarentzat alde onetik, momentu hortan Euskal Herrian 2.179.815 bizilagunetik, 749.182 konsideratzen dira euskaldunak, hau da, euskeraren ezagutza on baten jabe diranak, orain dala 30 urte baino 318.000 lagun gehiau, eta datu hau urtez urte goraka doa.

Baina arduratzekoa dana beste datu hau da. Etxeko erabilerak eta harreman pertsonaletako erabilerak beheruntz

“ Askok eta askok, euskera ondo ezagutu arren, ez dogu erabiltten gure artian; sarritan geure haurren aurrian be ez, nahiz eta, hori bai, ikastera D eredura bialdu

egin dau ehuneko puntu bat. 2011an euskera ondo menderatzen dauen lagunetako %20,8k bakarrik erabiltzen daue euren etxetan euskaria eta 2011an portzentai hau, %21,8koa zan. Gehigarri batekin, orain dala 20 urte, jende nagusia zan gehixen bat erabiltten ebena eta orain 20 urtetik beherakuak dira.

Nahiz eta gero eta ume eta gazte gehiaku euki euskaria lehen hizkuntza moduan, oindio %44 dira Euskal Herrian euskera ez dakixenak, eta hau benetan izugarritzko traba da erabilera hobetzeko.

Baina zenbaitek eta zenbaitek euskera ondo ezagututa, ez dogu erabiltten geure artian: lantokiko erlazioetan, lagun artian eta etxean bikotean eguneroko harremanetan. Sarritan geure haurren aurrean ere ez, nahiz eurari, hori bai, ikasketak euskeraz D ereduaren egittera bialdu ikastetxetara. Sarritan ohitura kontua dala esaten dogu, baina ez al dogu egin behar ahalegin gogor bat ohitura horreik aldaketako?

Aspaldi esan eben Joxean Artzek “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik”. Holakoren bat pasatuko al da gure euskerarekin? Nik uste dot oso serioki pentsatu biharko dugula arazo honen gainean, zeatik hemen ere neurri baten egixa da, Gure Esku Dago euskaria gehiau erabilttia. Ez gaittezen hasi beste inon kulpadun bila eta hasi gaittezen norberagandik erabilera hobetzen lantokian, kalean, koadrilan eta etxian.

BAKEAREN KONTZEPTUAK

Fernando Mendiguren



Zer ulertzen dugu bakeaz? Bakea askatasunez. Bakarkakoa eta kolektiboa. Berradiskidetzea, barkamena, eskuzabaltasuna. Bakearen klabeak. Baldintzarik gabea. Ez poliziak ezarritakoa. Elkarriketara irekia. Alde guztien artean adostua, zentzuz eta edukiz betea. Elkarrekiko ezagutza eta onarpenean sakonduz.

Elkarriketa hori, baina, ezinezkoa bihurtzen da, eskubideen taula bekorian jarrita bagoaz, gure akats eta betebeharrak onartzeko aukera eta bide guztiak itxiz.

Alderdi guztien arteko elkarriketa, eta bazterketarik gabe; denboraz, imaginazioz, dedikazioz, gogoz eta umiltasunez. Elkarren aurka dauden pertsona eta taldeen arteko berradiskidetzera iristeko.

Bakea egiaaren bidea da, barkamenarena, berradiskidetzearena, askatasunarena eta justiziarena. Legeek hotz hotzean eman dezaketena baino gehiago izan behar da bakea.

Bakea ez da bakarrik gerra edo gatazka eza; ez eta indarkeria armatua eliminatu eta aurkaria mendearen hartzea. Pertsona eta herrien askatasunak errespetatzeko konpromisoan oinarritu behar da.

Bakea ez dago proiektu politiko konkretu batean, lortzeko moduan baizik. Gogoaren edo animoaren lasaitasuna eta sosegua da bakea. Barneko bakea, armonia eta oreka pertsonala. Batzuk irabazleen poza goستن dute, eta galtzaileem ontsolamendua; bina nire ustez, hobe da irabazlerik eta galtzailerik gabeko bakea.

“ Ezin dugu euskaldun belaunaldi berri bat gatazkan bizitzera kondenatu, behar beste eskuzabaltasun eta ausardiarik izan ez dugulako gatazka amaitzeko

BAKEARENTZAKO AUKERA BAT

Euskal Herrian haize berriak eta aldekoak dabilta. Gatazkari behin betiko amaiera eman eta desiratutako bakea lortzeko bidea egiteko prest dagoen euskal

herritar gehiengoaren barruko sentimendua daramaten haizeak hain zuzen ere. Eta hori posible da, Nazio bat dagoelako konbentzitura dagoena bere eskubide zibil eta politikoak gauzatu, eta bere etorkizuna modu demokratikoan erabaki nahi duela.

Bakea izan behar da gure Nazio zahar/milenario hau osatzen dugunon helburu gorena. Azpimarratu behar da urratsak eman direla norabide horretan, baina argi dago ez direla nahikoak. Herritarrok zeresan eta zeregin ugari dugu botere publikoak derrigortzeko urratsak ematera bake-bidean. Denok egon behar dugu prest zeregin horretarako.

Ezin dugu euskaldun belaunaldi berri bat hipotekatu, eta gatazka politikoa bizitzera kondenatu, ez genuelako behar besteko eskuzabaltasuna eta ausardia izan gatazka amaitzeko.

Eginkizuna ez da erraza, eta lanean jarraitu behar dugu. Historia izango da lekuko apelaezina, eta ezingo digute leporatu euskaldunoi eskuzabaltasunez jokatu ez izana.

Batzuen arrazoiak eta besteen zentzugabekeria atzeratzen ari dira bakeari aurkera bat emango dion benetako espiritua.

OPARITU EMOZIOAK

- Pixoihal tartak
- Gosariak etxex etxo
- Ospitaletera bidalketak

Tel.: 663 764 511

www.cestasyregalosadomicilio.com



KIROLAREN Plan Estrategikoa egingo du Udalak

Elkarrizketak egingo dira herriko kirol talde eta eragileekin, eta galdetegi bat banatuko da etxe guztietara. Herritarren iritzia ezagutu nahi du Udalak, etorkizuneko kirol politikaren ildo estrategikoak finkatzeko.

■ ZERTARAKO KIROL PLANA

Hurrengo urteetan gauzatu beharreko kirol politikaren oinarriak finkatu nahi ditu Udalak. Gaur egungo benetako errealitatea ezagutu, eta hortik abiatuz, Oñatiko kirolaren garapen iraunkorra eta zentzuzkoa bermatzeko eman beharreko urratsak zein diren argitu nahi du udal Kirol departamentuak.

Horretarako, herritarren iritzia jakin nahi du Udalak. Herritar guztien; bai kirol elkarte eta eragileena, eta baita herritar partikularrena ere.

Beraz, aukera ederra dugu orain herritarrok, esateko zer botatzen dugun faltan kirol arloan, zer hobetu beharko litzatekeen gure ustez, eskaintza mailan edo azpiegitura mailan, besteak beste.

Oñatiko kirol errealitatearen benetako argazkia atera nahi da eta, horretarako, behar beharrezkoa da herritarren partehartzea. Horregatik, udal arduradunek dei berezia egiten diete herritar guztiei parte hartzera, prozesuan zehar antolatuko diren bileretan parte hartuz, edo etxez etxe banatuko diren inkestei erantzunez.

HERRITARREN PARTEHARTZEA

Kirol Management enpresako kideak herriko kirol talde eta eragileekin bilduko dira, hauen errealitatea eta iritzia ezagutzeko.

Bestalde, herritar guztiei zuzendutako galdetegi bat banatuko da etxe guztietara, ahalik eta herritar gehien iritzia jasotzeko asmoz.



Udalak **KIROL MANAGEMENT** enpresa kontratatu du plan estrategikoa koordinatu eta gidatzeko

■ NOLA EGINGO DA PLANA

Udalak **KIROL MANAGEMENT** aholkularitza kontratatu du plan estrategikoa koordinatu eta gidatzeko. Baina, esan bezala, inportanteena herritarren partehartzea da; herritarrek beraien iritzia ematea.

Helburu horrekin bi prozesu partehartzaile paralelo egingo dira. Bat, herriko kirol talde eta eragileei zuzendua; bestea, herritar partikularrei zuzendua.

Hala, alde batetik, Kirol Management enpresako teknikariak herriko kirol talde eta eragileekin bilduko dira (Aloña Mendi, Eskola Kirola, jubilatuek...), hauen ikuspuntua, errealitatea eta premiak ezagutzeko asmoz.

Bestalde, aldi berean, herritar norbanakoei zuzendutako galdetegi edo inkesta-orri bat banatuko da herriko etxe guztietara.





AINHOA MARTIN

Udal Kirol batzordeko burua

Herritarren partehartzeak berebiziko garrantzia izango du. Etorkizuneko kirol politikaren oinarriak finkatu nahi ditugu

ZER AZTERTUKO DA

Plan integrala izango da; hau da, kirol federatua ez ezik, aisialdiko kirola edo jarduera fisikoa ere hartuko du kontuan. Alde batetik, kirol azpiegituren inguruko azterketa eta hausnarketa egingo da: zein egoeran dauden instalazioak; nahikoak ote diren, zer falta den...

Bestalde, kirol eskaintza ere aztertuko da: behar bezain zabala al den, nola osatu daitekeen egungo eskaintza, kirola sustatzeko nahikoa egiten ote den...

Generoa ere aztertuko da, besteak beste; kirol eskaintza neurri berekoa oten den emakume eta gizonezkoentzat....

GALDETEGI BAT banatu da etxe guztietara

Ekainaren 20a arteko epea egongo da galdetegiei erantzuteko

Ahalik eta herritar gehienaren iritzia jaso nahi ditu udalak Kirol Plana egiteko. Helburu horrekin, galdetegi bat banatu da herriko etxe guztietara.

Besteak beste, herrian dagoen kirol eskaintzari eta kirol instalazioei buruzko iritzia eskatzen zaigu bertan;

ezer faltan botatzen ote dugun, zer aldatu edo hobetuko genukeen...

Etxe bakoitzera galdetegi bana bidali da; beraz, etxe bakoitzean batek baino gehiagok erantzun nahi izanez gero, herriko zenbait gune publikotan (udaletxea, kiroldegia, Pake Leku, kultur etxea...) eskuratu ahal izango dira behar beste.

Ekainaren 20a arteko epea egongo dela galdetegiari erantzuteko. Inkesta-orriak bete ondoren, goian aipatutako gune horietan eongo diren buzoietako batean utzi beharko dira.

Galdetegi hau 16 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago. Bestalde, 12-16 urte arteko gazteentzat beste galdetegi espezifikoa bat pestatuko da aurreraxeago. Ikastetxeak, Eskola Kirola programa eta Gaztelekuaren bitartez helaraziko zaie gazteei, beraien iritzia eman dezaten.

Etxe bakoitzera galdetegi bana banatu da. Gehiago behar izanez gero, udaletxetan, kiroldegian, pake-lekun eta kultur etxean egongo dira eskuragai nahi beste

ZENBAT IRAUNGO DU

Urtebete iraungo du prozesu osoak. KKirol Management enpresako kideak hasi dira bilerak egiten herriko kirol eragileekin, eta, bestalde, herritarrei zuzendutako galdetegiak ere egun hauetan banatuko dira etxe guztietara.

Bilera horietan eta galdetegien bidez jasotako informazioarekin lehen diagnostikoa egingo du Kirol Management enpresak.

Ondoren, bigarren partaidetza prozesua jarriko da martxan urrian. Lehenengo fasean jasotako emaitzak azaldu, eta ekarpen berriak egiteko aukera zabalduko zaie kirol eragile eta herritarrei..

Ekarpen hauek jaso eta beharrezkak diren zeharkako faktoreak aztertu ondoren, behin betiko plana idatziko du Kirol Management enpresak, helburuak, ildo estrategikoak, ekintza lerroak eta lehentasunak definituz. 2015eko martxorako amaituta egongo da.



- Instalazio elektrikoak
- Etxotresna elektrikoaren konponketak

Jose Moyua kalea 16, behea • Tel./Fax: 943 78 73 10
Mug: 615 74 94 94 • 20560 ONATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Kurtzetxo eta Lizaur artean erreil bat itxita egongo da hilabete eta erdiz



Argazkian ikus daitekeen moduan, trafikorako itxita dago Kale Zaharreko erreil bat, Kurtzetxotik Lizaur kalerainoko tartean. Maiatzaren 5ean itxi zuten erraila, eta halaxe egongo da hilabete eta erdiz, ur eta saneamendu hoditeria berritzeko lanak egin bitartean. Zabalik geratzen den erreilean norabide biko trafikoa ibiliko da, txandaka, semaforo bidez erregulatuta. Itxitako erreilean zeuden atez ateko esekitokiak ermita parera eraman dituzte, eta beira edukiontzia Ibarra Zelai kaleko sarrerara.

MURGIAN ERE ITXITA. Gogoratu San Martinetik Umerez baserrira doan bidea ere itxita dagoela Umerezko ur biltegia eta San Martin auzunea lotuko dituen hoditeria sartzeko lanak egiteko.

Zubillagako urbanizazioa berritzeko proiektua enkargatu du Udalak



Zubillaga auzoa gurutzatzen duen errepidearen ekialdeko urbanizazioa berritzeko proiektua enkargatu dio Udalak Sestra Ingeniería y Arquitectura S.L. enpresari. Iaz, bizikleten eta oinezkoen bidea egokitu zuen diputazioak Zubillagako errepidearen mendebaldean, eta orain beste aldeko urbanizazioa (auzoko 20 eta 55 zenbakien arteko tartea) berritu nahi du Udalak.

Alde horretako esapaloia konponduko da, zebra-bideak egokituz eta oztopo arkitektonikoak ezabatuz. Horrez gain, auzo-etxearen irisgarritasuna bermatzeko lanak ere egin nahi dira, arrapala bat egokituta. Bestalde, gune horretako espazioak berrantolatzeak asmoa ere badu Udalak; hala, aparkalekuak antolatu eta autobus geltoki edo markesina bat jartzeko aukera ere aztertuko da, besteak beste.



San Lorenzo berritzen jarraituko du udalak

Hiru gune berritzeko proiektuak enkargatu ditu

San Lorenzo auzoa eraberritzen jarraituko du Udalak. Hala, hiru gune edo fase berri egiteko proiektuak enkargatu dizkio A2B Arquitectos enpresari.

Alde batetik, auzoaren goiko aldean dauden 62, 63 eta 65 etxe-multzoaren irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira. Espaloiak zabaltu, zoladura berritu eta zebra-bideak egokituko dira, irisgarritasuna bermatzeko. Gainera, arrapala bat egokituko da, perimetroaren goialdean dauden aparkalekuetara iristeko.

Bestalde, auzoaren erdi inguruan dauden 42-43 eta 32-33 etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berrituko da, auzoaren erdiko ardatzera (igogailuen gunea) modu irisgarrian iritsi ahal izateko.

Horiez gain, San Lorenzo auzoaren eratzunaren egoera txarra kontuan hartuz, Lazarraga kaletik Errekalderako tunelera doan espaloi zatia konpontzea ere beharrezkotzat jo du Udalak, eta lan hauek ere fase honetan egingo dira. Orain lanak esleitu behar ditu Udalak, eta, seguruenez, ekaina bukaerarako hasteko moduan izango dira.

Kolorez daude adierazita fase berri hauetako lanek hartuko dituzten guneak

► DEIALDIA

Oñatiko zerbitzu turistikoaren kudeaketa integrala kontratatzeko deialdia egin du Udalak

Herriko zerbitzu turistikoak (turismo bulegoa eta bertako San Migel errota, eta Arrikruzteko koba) modu integralean kudeatuko dituen enpresa kontratatzeko deialdia egin du Udalak, Garapen eta Turismo Agentziaren (OGTA) bidez. Lehiaketara aurkezten diren enpresek egiaztatu beharko dute gutxienez bi urteko esperientzia duela Q kalitate agiria duen turismo bulego bat edota kobazulo turistiko bat kudeatzen, azken hiru urteetan.

Lehiaketarako gehienezko prezioa 97.000 eurotan (BEZ kanpo) finkatu da. Proposamen ekonomikoaz gain, proiektu teknikoa eta hobekuntza proposamenak ere baloratuko dira esleipena erabakitzeko. Bi urterako kontratua egingo da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Maiatzaren 12an amaituko da proposamenak aurkezteko epea. Udalaren webgunean (www.oinati.eu) edota OGTAren bulegoetan (Bidebarrieta 12) eskura daiteke baldintza zerrenda osoa.

■ PROMOZIO KANPAINA

20€-ko kostua eta 25€-ko balioa duten erosketa bonoak jarriko ditu salgai Udalak

Eskualdeko denda txikiei eta zerbitzu sektoreari laguntzeko kanpaina jarriko du abian Debagoieneko mankomunitateak 'Debagoieneko bonuak' izeneko ekimenaren bidez. Hala, 20 euroko kostua eta 25 euroko balioa duten bonuak jarriko dira herritarren eskura. Oñatiri dagokionez, halako 300 bono jarriko dira salgai. Udal bulegoetan eskuratu ahal izango dira maiatzaren 9tik 30era bitartean. Herritar bakoitzak bono bat bakarrik eskuratu ahal izango du.



0 ETA 2 URTE ARTEKO haurrentzako txokoa egokitu du Udalak Gaztelekuko sotoan

Hainbat gurasoren eskariari erantzunez, 0 eta 2 urte arteko haurrentzako gune espezifikoak egokitu du Udalak Gaztelekuko sotoan. Argazkian ikusten den moduan, 40m² inguruko gunea da, haurren beharretara egokitu dena, koltxoneak, mahaitxoak eta jolaserako hainbat joku eta elementurekin. Gogoratu, sotoan ez dagoela zaintza zerbitzurik eta, beraz, gurasoek edo pertsona heldu batek lagunduta egon behar dutela beti haurrek.

Sotoa egunero dago zabalik arratsaldeko 17:00etatik 19:45etara, eta asteburu eta jai egunetan baita goizez ere (10:30-13:00).

Pertsona nagusien 'Zaintza' ikastaroan izena emateko azken egunak

Adinekoak eta behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko formazio ikastaroa antolatu du Udalak, kontuan hartuz laister beharrezkoa izango dela profesional ziurtagiria sektorean lana egiteko. Ikastaroak 120 orduko iraupena izango du, maiatzaren 12an hasi eta ekainaren 20ra art. Arratsaldez (15:00-19:00) izango dira eskolak, Arrasateko Bastida akademian. Ikasleei bidaia gastuak ordainduko zaizkie. Maiatzaren 9a da izena emateko azken eguna, udal Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12 / 943 03 77 00).

Zortzi langabetu kontratatu ditu udalak pioi lanetarako

Foru Aldundiak herrialdeko udalen enplegu ekimenei laguntzeko emandako laguntzaz baliatuz, pioi lanetan aritzeko 8 langabetu kontratatu ditu udalak, iazko azaroan osatu zen herriko langabetuen zerrenda aintzat hartuz. Sei hilabeterako kontratua egin die eta egun erdiz ariko dira herri-lanetan.



ESKOLABUS

autobus zerbitzu bateratua izango dute Txantxiku Ikastolak eta Elkar Hezik maiatzetik aurrera

► Onura ugari ditu egitasmoak: ingurumena zaindu, trafiko arazoak ekidin, eta gastuak murriztu.

► Proba piloto bat izango da ikasturte amaiera arte

Maiatzaren 5ean jarriko da abian ESKOLABUS egitasmoa. Ikasturtea amaitu bitartean Txantxiku Ikastolak eta Elkar Hezi ikastetxeak garraio zerbitzu bateratua izango dute. Horrek esan nahi du, bi ikastetxetako ikasleek partekatu egingo dituztela autobusak, eta horrek hainbat onura ekarriko ditu, bai trafiko aldetik, bai ingurumen aldetik, eta baita ekonomikoki ere.

Alde batetik, Ikastolak erabiltzen duen autobusaren tamaina txikitzea lortuko da, errekursoak optimizatuz, eta, horrenbestez, herri barruan sortu ohi diren trafiko arazoak ekidingo dira neurri batean. Bestetik, ikastetxeetako autobusek Zubillaga eta Olakua-San Lorentzo ardatzetan egiten dituzten bidaia kopuruak murriztuko dira, duplizitate edo bikoiztasunak ebitatuz. Bi autobus elkarren segidan erdi-beteta ibiltzea ekidingo da, horrek dituen onura guztiekin, bai trafiko eta baita ingurumen aldetik. Onura ekonomikoa ere berehalakoa izango da ikastetxeentzat, autobus zerbitzuaren kostua murriztu egingo baita.

HEZKUNTZA MAHAIAN SORTUTAKO EGITASMOA

Udalak eta herriko hiru ikastetxeek osatzen duten Hezkuntza Mahaiaren baitan sortu zen Eskolabus proiektua abian jartzeko egitasmoa. Hasierako helburua, herriko hiru ikastetxeentzako garraio zerbitzu bateratua ezartzea zen. Asmo horrekin, Udalak BITAKA enpresa espezializatua kontratatu zuen, egoeraren diagnostikoa egin eta proposamen bat aurkezteko.

Bitakak aurkeztu zuen hiru ikastetxeen autobus zerbitzua bateratzeko proposamena, baina iazko ikasturte amaieran Urgain eskola publikoak proiektutik kanpo geratzea erabaki zuen, besteak beste, autobus zerbitzua Jaurlaritzak ordaintzen duelako eta, beraz, ikastetxeak ez daukalako erabateko autonomia garraio zerbitzuaren kudeaketan.

Horren aurrean, Bitakak bigarren txosten bat egin zuen, Elkar Hezik eta Txantxiku Ikastolako zerbitzuak bateratzeko helburuarekin, ikasturte honetako datu errealean (autobusa erabiltzen duten ikasleen kopuruak, ordutegiak, ibilbideak, geroalekuak...) oinarrituta.

Ikastolak eta Elkar Hezik oiniritzia eman diote egitasmoari, gurasoeekin kontrastatu ondoren, eta, esan bezala, proba piloto bezala martxan jartzea erabaki dute, ikasturtea amaitzeko geratzen diren bi hilabeteetan. Ikasturte bukaeran baloratuko dute esperientzia, irailetik aurrera Eskolabus egitasmoarekin modu egonkortuan jarraitu ala ez erabakitzeko.



Ikastolak erabiltzen duen autobusaren tamaina txikitzea lortuko da, besteak beste, garraioa partekatuz



AUTOBUSENDAKO GERALEKUA

Ikastolako geltokian bi autobus txikirentzako lekua egokitu behar izan du Udalak, Eskolabus egitasmoaren funtzionamenduak hala eskatuta. Horretarako, gune horretan zeuden elbarrientzako hiru aparkalekueetatik bat kendu behar izan du. Trafiko seinaleak adierazten duen moduan, marra horiz markatutako gune hau autobusek erabiltzeko da eskola orduetan. Hortik kanpora hau da, 17:15etatik aurrera edozeinek erabili ahal izango du.

IRAZOLA
Okindegia
Larrañaga-2000, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
ONATI

Margoak
TXINTXURRETA
653710121
943783012



EUSKARAREN AURKAKO ERASOAK SALATU DITUZTE



‘Estatuen esku-hartzea gelditu!’ lelopean, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek, Kontseiluak egindako deialdiari erantzunez, Espainiako gobernuak EAEn duen ordezkari Carlos Urkijok “euskararen normalizazioa geldiarazteko abiatutako erasoaldia” salatzeko. Espainiako gobernu ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta beste 37 udalen (tartean Oñati) salaketak jarri ditu, kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak ezartzeagatik.

Ilido horretan, udal gobernu taldeak adierazi du bi hizkuntza ofizial ditugula erkidego autonomoan, baina Espainiar estatuak bortizki erantzuten duela euskararen ofizialtasuna praktikan jarri nahi duten euskal administrazioen aurka, errekerimendu, helegite eta mehatxuen bidez. Erakundeen aurka ez ezik, euskaldun guztion eskubideen kontrako inposizio onartezina da udal gobernuaren ustez, eta dei egiten die herritarrei erantzun bateratua ematera.

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

Euskararen erabilera sustatzeko asmoz, Udal Euskara departamentuak ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak argitaratu ditu Udalak. Bi dirulaguntza-lerro nagusi daude. Batetik, hizkuntza paisaia euskaratzeko laguntzak; hau da, errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen duten entitateek Udalaren dirulaguntza eskatu ahal izango dute.

FORMAZIOA EUSKARAZ

Bigarren dirulaguntza lerroa formazioarekin lotuta dago. Ilido horretan, Udako Euskal Unibertsitatearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hik Hasi-ren euskara hutsezko ikastaroetan parte hartzen dutenek eskatu ahal izango dute Udalaren laguntza. Oñatin erroldatuta egotea eta ikasle edo langabetu izatea da baldintza. Matrikula formalizatu ondoren egin behar da eskaera udal bulegoetan.

NEREA ZUBIA / Udaleko Hezkuntza batzordeko burua



Eredu jasangarriago baterako bidea egitea da helburua

Hona iritsi arteko prozesua uste baino luzeagoa izan den arren, espero ditugun emaitzak emango dituenaren zalantzarik ez dut. Prozesuan zehar herriko hiru ikastetxeek parte hartu dute eta aberasgarria izan da egoeraren argazki erreal bat atera ahal izan dugulako, egoera hobetzeko plantementu-piloto bat adosteraino. Eskola publikoak proba-pilotutik kanpo geratzeko erabakia hartzearen arrazioa euren garraio-publikoaren eskumen osoa ez izatea izan da, baina aurrerantzean ahaleginak egiten jarraituko dugu.

Helburua, orain baino erredu jasangarriago baterako (maila ekonomikoan, ingurumenari dagokionez, eta mugikortasunaren ikuspegitik) bidea egitea da eta, libildideak arrazionalizatzea, Txantxiku Ikastolaren autobusaren tamaina txikitzea (erabiltzaile kopuruagatik oso handia da, eta herriguneko hainbat puntutan mugikortasun arazoak sortzen ditu), ibilgailuen zirkulazioa hobetzea herrian eta, batez ere, ingurumenarekiko ahalik eta errespetu handiena edukitzea.

Proba pilotuaren emaitzak aztertuko ditugu eta horren arabera urrats gehiago egiten joateko apustua egiten dugu, Eskolabus egitasmoaz haratago. Adibidez, haurrak eskolara oinez edo/eta bizikletan joateko ohiturak sustatu beharko genituzkela iruditzen zait eta Hezkuntza Mahaiara bide honetan lanketa bateratu bat egiten hastea proposatuko dugu.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIEN ENPATRATURIKO ALTZARIAK

BELAR, S.A. Irrati -Telebista

Oñakua, 1 - C behea
Tel. / Fax: 943 78 06 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)




PLAN
STAND
SCENE
FIELD
PROD
DESIGN
SCOPY
FEED



200 PUNTU

Segurtasuna, mugikortasuna, irisgarritasuna eta adierazpen sinbolikoari erreparatu, hobetu beharreko 200 puntu identifikatu dituzte

Genero ikuspegitik herrian hobetu beharreko puntuen mapa osatu dute

Emakumeen ikuspuntutik hobetu beharreko 200 puntu dituen mapa osatu dute 'Hirigintza eta Generoa' egitasmoaren baitan. Udalaren Berdintasun sailaren ekimenez, herriko hainbat emakume eta kolektibok jardun dute iazko abendutik hona, Oñatiko herria emakumeen begi eta beharretatik aztertzen, seguritatea, mugikortasuna, irisgarritasuna eta adierazpen sinbolikoa bezalako alderdiei erreparatu.

Udalak Farapi elkarteak kontratatatu zuen lan hau koordinatu eta dinamizatzeko, eta herriko emakumeekin bilera ezberdinak egin ostean, Oñatiko herrian hobetu beharreko 200 puntu identifikatu dituzte. Ondoren, lehentasunak finkatu dituzte eta, hala, apirilaren 7an ibilaldia egin zuten herriko kaleetan zehar, hobetu beharreko puntuetan bihotz erdiko formako ikurrak



jarriz, argazkietan ikusten den moduan.

Orain, Udaleko Hirigintza eta Zerbitzuen sailean ari dira proposamen hauek guztiak aztertzen, beste plan batzuekin (Irisgarritasuna, Mugikortasuna...) alderatuz, eta ekainerako azken txostena eginda egotea espero dute. Helburua da, udal Hirigintza sailak bere egitea txostenak jasotakoa, eta



hemendik aurrerako hirigintza planean aitzat hartzea.

"Azken batean, Oñati bizigarriagoa egitea da helburua. Urte askotan zehar ikuspuntu androzentriko batetik diseinatu eta eraiki dira herri eta hiri asko. Horreagatik, Oñatik emakumeen begietara dituen gabezia eta hutsuneak identifikatu nahi ditugu; azken batean, emakumeok gara, gehienetan, umeak eta adineko pertsonak zaintzen ditugunak; beraz, gure beharren arabera eraikitzen baditugu herriak, denon onerako izango da" adierazi dute emakumeek.

HARITZA

- Papardenda
- Liburudenda
- Lotoz
- Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfinoa: 71 23 96

BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

■ HOBETZEKOAK LEHENTASUNAK

1. Oلابarrietako bidea: iluna eta arriskutsua.
2. Ugarkalde: estalitako gunebat eta zerbitzuen beharra.
3. San Lorentzo: markesina eta komuna egokitu nagusien beharretara; adinekoentzako gimnasia aparatua.
4. Bidaurreta: etorbidean segurtasuna bermatu: argiteria, autodefentsa ikastaroak...
5. Martzelino Zelaia: semaforoa jarri zebra-bidean.
6. San Martin: argiteria falta; parkea estali; ekipamenduak eta zerbitzuak sustatu (komertzioak, ostalaritza...)
7. Apaolaza alarguna kalearen izena aldatu.
8. Musika eskolaren kokapena begiratu.
9. Tunela: segurtasuna sustatu.
10. Bakardadeko Ama: espaloia handitu eta kotxeak kendu.
11. Kale Zaharra eta Kale Barria oinezkoentzat bakarrik.
12. Korreoseko geltokia eta komuna adinekoentzat egokitu.
13. Osasun zentroa: irisgarritasuna eta 24 orduko zerbitzua bermatu guztiontzat (garraioa Arrasatera...).
14. Kiroldegia: kirol librea sustatu; kirol-eskaintzaren ordutegia zabaldu.
15. Azoka: estali, eta argitu
16. Gaztelekua: talde-jolasak bultzatu eta ez banakakoak.
17. Desioen parkea: Olakua-San Martin bidea egin; San Martinera doan bidea oso aldapatsua da Martzelino Zelaia; Santa Lutzia parkea txukundu; Hilerriko zorutik hartxintxarra kendu; Garraio publikoa jarri eta sustatu, herri barruan eta auzoetara.

Emakumeen Euskal Bira GIROTZEKO EKITALDIAK

► Ekainaren 13an Euskal Birako etapa bat jokatu da Oñatin

Emakumeen partehartzea eta emakumezkoen kirola sustatzeko asmoz, Debagoieneko mankomunitateak iaz erabaki zuen urtero Emakumeen Euskal Birako epata bat antolatzeke ardura hartuko zuela bere gain. Iaz, Aretxabaletan egin zen, eta aurten Oñatin izango da, ekainaren 13an, ostirala. Birak izango dituen lau etapatan bigarrena izango da; Oñatin hasi eta bertan bukatuko da, 114 km.-ko ibilbidearen ostean.

Udaleko Kirol saila eta Aloña Mendiko Txirrindularitza saila ari dira antolakuntza lanetan, herriko beste zenbait talderen (Abixaran, Andraitx...) laguntzarekin. Etapa bera antolatzeaz gain, beste hainbat ekitaldi ere prestatu dituzte, herria girotu eta emakumezkoen kirola sustatzeko asmoz.

Emakumeen Euskal Birak 26 urteko historia du, eta UCi-ko maila goreneko itzulia da. 1988an jokatu zen aurreneko aldiz, amateur mailan, eta 1992tik aurrera profesional mailako lasterketa da. Aurten ere emakumezkoen tropelean dauden munduko txirrindulari onenak ikusiko ditugu gure artean; 200 bat guztira.



Emakumezkoen tropeleko txirrindularirik onenak ikusi ahal izango ditugu gure artean

EGITARAUA

► BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA .

Ondoren, emakume martxa bidegorritik
Maiatzak 31, larunbata, plazan, 10:00-20:00.

► HITZALDIA: 'EMAKUMEAK ETA KIROLA', Eider Etxeberriaren eskutik. Ekainak 4, asteazkena, kultur etxean, 18:30.

► ZINE EMANALDIA: 'EMAKUMEAK PLAZAN' ETA 'PILOTA GRIS' Ekainak 5, osteguna, plazako frontoian, 22:00.

► TERTULIXA: 'DEPORTIA ITTEKO GOGUA NAHIKUA DON?' Hizlariak: Herriko kirolariak Ekainak 11, asteazkena, udaletxearekin areto nagusian, 18:30

(*) Eguraldi txarra bada, maiatzaren 31ko eta ekainaren 5eko ekitaldiak gaztelekuan

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lantzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 94 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 69 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94, 79 Posta Kutxatila. OÑATI

'GURE ESKU DAGO'

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO HERRI EKIMENA



1.000 oñatiar baietz!

► Durango eta Iruña arteko giza katean mila herritar batzea nahi du Oñatiko Gure Esku Dagok

Hilabete gelditzen da, Gure Esku Dago ekimenak deituta, Durango eta Iruña lotuko dituen giza kate erraldoia osatzeko. Ekainaren 8an egingo da. Erabakitzeke eskubidearen aldeko ekitaldia izango da: herri bat gara, eta herri bezala geuri dagokigu Euskal Herriaren etorkizunean izango dena erabakitzea.

Gutxienez 50.000 lagun behar dira Durango eta Iruña lotuko dituen 123 km.-ko giza katea osatzeko, baina askoz ere jende gehiagok parte hartzea da helburua, garrantzitsua delako era masiboan erakustea herri honek bere etorkizuna erabakitzeke duen determinazioa.

Oñatin dagoeneko 500 lagunek eman dute izena giza katean parte



Dagoeneko 500 inguru herritarrek eman dute izena ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko

hartzeko, baina kopuru hori bikoiztu eta gutxienez 1.000 oñatiar batzea da Oñatiko Gure Esku Dago taldearen helburua. "Katalunian ikusi dugu herri mugimenduak izan dezakeen indarraren adibidea. Beraz, garrantzitsua da hemen ere ahalik eta jende gehienak parte hartzea giza katean. Herri honetan asko gara erabakitzeke eskubidearen alde gaudenak, baina "egotera" mugatu barik, abiatzeko ordua da; abiatzen bagara, orduan egongo baikara helburutik gero eta gertuago. Horregatik dei egiten diegu herritar guztiei giza katean parte hartzera. Eskatu giza katerako zure metroa! Eta egin gonbidapena zure ingurukoei!" adieraz du Oñatiko Gure Esku Dagok.

► HARTU ZURE METROA GIZA KATERAKO

Ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko metroak eskuratu ahal izateko mahaia jarriko ditu Oñatiko Gure Esku Dago taldeak ondoren toki eta egunetan.

- **Maiatzak 8**, Kale Zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 9**, Kale Zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 10**, Plazan (11:30-13:30) Kale Zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 15**, Atzeko Kalen (19:00-21:00)
- **Maiatzak 16**, Plazan (19:00-21:00)
- **Maiatzak 17**, Plazan (11:30-13:30) kale zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 22**, Kale Zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 23**, Etxaluzen (19:00-21:00)
- **Maiatzak 24**, Plazan (11:30-13:30) Kale Zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 29**, Kale Zaharrea (19:00-21:00)
- **Maiatzak 30**, Errekalden (19:00-21:00)
- **Maiatzak 31**, Plazan (11:30-13:30) kale zaharrea (19:00-21:00)

Oñatiarrok bete behar dugun kilometroa Arrasateko Musakola eta Kataide poligonoa artekoa izango da. Animazioa egongo da.

► Bideoklipa San Migel Txikitan / MAIATZAK 11

Gure Esku Dagoren kantuarekin egindako bideoklip propioa prestatzen ari da Oñatiko plataforma. Abestiaren moldaketa egin dute herriko hainbat musikari eta abeslariren laguntzarekin, baina bideokliparen azken zatia herriar guztiekin batera grabatu nahi dute. Hala, maiatzaren 11n, igandea, 20:15ak aldera, orain arte grabatutakoa aurkeztu eta falta den zatia grabatuko dute San Migel Txikiko plazan. Beraz, dei egiten diete ume, gazte, heldu zein nagusiei bideoklipetan parte hartzera.

► Eskualdeetako giza katea Urbian / MAIATZAK 18

Ekainaren 8rako motorrak berotzen joateko, esku-aldeen arteko giza katea egingo da maiatzaren 18an, 12:00etan. Debagoiena, Urola eta Goierri eta Aguraingo Kuadrillako jendea elkartuko da bertan.

ESKURATU ZURE METROA ETA EGIN GONBIDAPENA ZURE INGURUKOEI !

www.gureeskudago.net



Guztiona, guztion artean



Batxilergoa: Zuazola

50 urte Oñatiarrak hezitzen

- Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!
- Banan-banako orientazio akademikoa: Unibertsitatera edo Lanbide Heziketara.
- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Talde txikiak.
- Teknologia berriak.
- Hizkuntzel arreta berezia:
 - Euskara, EGA eskuratzeko aukera.
 - Ingelesa, elkarrizketarako laguntzaleekin.
 - Frantsesa, Alliance Française titulua lortzeko aukera.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak (curriculumak garatzeko).

Modalitateak:

Zientzia eta Teknologia: Matematika, Fisika-Kimika, Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa, Teknologia,...

Giza eta Gizarte zientziak: Historia, Geografia, Matematika, Enpresaren Ekonomia,...

AURREMATRIKULA: maiatzaren 5etik-15era.

Ate irekiak: maiatzaren 7an 18:00ean Zuazola egoitzan.

Heziketa Zikloak: Larraña

Aukeran, Lanbide bat

Erdi mailako Heziketa zikloak:

- Mantentze-Lan Elektromekanikoak
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol Ekintzen Gidaritza

Goi mailako Heziketa Zikloetarako sarbide frogarako prestaketa klaseak:

- Euskara
- Matematika

Bestelako Hezkuntza eskaintza:

- Lanerako prestakuntza: Langile eta langabetuentzat ikastaroak doan.
- Eskaeren arabera prestakuntza.

AURREMATRIKULA: maiatzaren 27tik- ekainaren 6ra.

Ate irekiak maiatzaren 28an, 18:00ean Larraña egoitzan.

Eragileen behar eta iritziekin aurrera doa Eltzia

Maiatzaren 14 eta 28an Bateratze Saioak egingo dira ELTZIAren oinarriak ezartzeko

Beharrak medio eragile batzuk aurki eta beste batzuk iadanik badarabilte eraikina

8 hilabete pasa dira ELTZIA prozesua martxan hasi zenetik. Ehundaka pertsona, iritzi, behar, ikuspuntu batu ditu tarte horretan, ETEOko eraikinari zein erabilera eman erabakitzeko. Eltzeak bezala su bajuan eta presa gabe osatzen dabil etorkizuneko proiektua.

Ia 20 ekimen ezberdin egin dira proiektua zehazteko

gelditzen zaion arren ma-iatza garrantzitsua izango da ELTZIA-ren etorkizuneko eredurako. Garrantzitsua, batez ere, maiatzaren 14 eta 28an Bateratze Saioak egingo

baitira. Orain arte egindako bileretan jasotako ideiak eta ikuspuntuak el-karbanatzea da helburua, Labur esanda, proiektuari oinarriak jartzea, parte hartzen dutenen artean adostuta. Eltzekide diren edo izan nahi duten guztien artean hurrengo pausuak zehazteko.

1. ETA 2. FASEAK

ELTZIA-ren hasieran herriko mugimendu ezberdinen identifikazioa eta beraien egoeraren diagnostikoa burutu zen, ETEOko eraikin zaharrean egon ahal diren eltze ezberdinak sortzeko: Sormen Eltzia, Herri Mugimenduen Eltzia, Gorputz Eltzia, Musika Eltzia, Auzo Eltzia eta Udal Eltzia. Hasiera batean,

eraikina kultur eta sormen eragileentzako gune bilakatzea zen ideia. Baina, bere proiektu komunitario izaera eta ideia aldatu gabe bizilagun gehiago atxiki zaizkio proiektuari. Herri eragileen bilgune eta bizitoki bihurtuz.

Eltze bakoitzarekin bi lan saio egin dira, 12 guztira. Lehena, espazioan zer egon behar den zehazteko. Bigarrena, nola kudeatu beharko litzatekeen hitz egiteko. Hortik dator Bateratze Saioetan landuko den eduki nagusia. Esandako eta entzundako guztia batuta proiektuaren lehen zirriborroa osatu da. Zirriborroa soilik maiatzeko saioetan kide, eragile eta bidelagun guztien

Eraikina kudeatzeko oinarriak eta egitura adostu dituzte eragileek

arteaz aztertu, eztabaidatu eta adostu arte. Beste ezer atxikitzeko edo etorkizuneko funtziona-mendurako beste eredu bat proposatzeko aukera zabalik dago.

Bateratze Saio horien garrantzia hemendik aurrera ELTZIAk zein norabide hartuko duen eta nola jardungo duten erabakitzean datza.

GAUR EGUN

Eraikina erabiltzen dabilta iadanik. Hainbat eragilek espazio berri edo propio baten beharra ikusten zuten, baita lokal hutsak ETEOn. Ondorioz espazioa bideratu zitzairen. Era berean ku-deaketa modu ezberdinak frogatu eta aukeratzeko aukera on gisa ikusi da.

13 eragile dabilta bertan lanean, beti ere 3 baldintza errespetatuz: eraikinaren baldintzak ez direla aldatuko, elkarren artean kudeaketa adostuko dutela eta gaur eguneko egoera probisonala dela, aurrera egin ahal beharrak aldatu eta berrantolaketa bat suerta daitekeelako.

Kudeaketa amankomunaz Erabiltzaileen Koordinazio Taldea arduratzen da. Eraikina erabiltzen hasi eta igarri





zituzten hutsuneak betetzeko sortu zuten eragileek eta oinarriak jarri dizkiote funtzionamenduari. Egunerokoak sortzen dituen arazoak konpontzen ditu EKT-k: garbiketa, mantenua... Hutsune bat ikusi, hutsunea konpondu.

Landutako puntuen artean esanguratsua da auzo lanarena. Eraikinak, erabilera zuzen baterako, egokitzapen batzuen beharra zeukala igarri zuten. Lanerako Eltze guztietako kideei deialdia egin eta denen artean egin zituzten lanok.

MUSIKA ELTZIA

Etorkizuneko eredia sortze bidean aurreratuen Musika Eltzekoak daude. Musika taldeak oraindik ez dabilta eraikinean, baina gutxi falta zaie Errekaldetik ETEOko eraikinerako aldatzeko.

Martxoa bukaeran Musika Eltzia izan ahal denaren lehen planoak aurkeztu zituzten. Udal ordezkariak eta herriko musika sor-tzaileak (rock taldeak, txaranga, batukada, gan-bara...) elkartu eta proiektu arkitektonikoa egin duen enpresako kideekin batera egitasmoa nola planteatu den, zailtasunak eta aukera ezberdinak aztertze zituzten.

Proiektua ez dago itxia oraindik. Beste bilera batzuk deitu dira nola gauzatuko den adosteko.

NEREA ZUBIA / Udaleko Kultura batzordeko burua

Eltzia oñatiarrena da eta guztiei zabalik dago

Zer da ELTZIA Udalarrentzat?

Herriko sortzaileen eta eragileen lana garatzeko zein erakusteko gunea baina baita auzo zein herribizitza sustatzeko gunea ere bada. Hala ere, espazio huts baten okupazioa baina gehiago dela azpimarratuko nuke. Prozesuarekin hasi ginenetik lan egiteko eta izateko eredu desberdin bat sustatzen dugu, autoeraketan eta elkarlanean oinarrituta.

Zein da Udalaren papera prozesuan?

Udala prozesuan beste eragile bat gehiago bada ere, eraikinaren jabetza udalarena izateak suposa-

tzen duena da eraikinaren ardura berea izatea.

Bestalde, prozesuari dagokionez, udalak orain arte sortu diren egitura eta erabaki-guneetan parte hartzen du eta momentuko beharren arabera, prozesuak aurrera egiteko eskuragarri dituen laguntza eta baliabideak eskaintzen ditu.

Hasierako proiektutik aldatzen joan da Eltzia, nola baloratzen du Udalak?

Oso modu positiboan. Horrek esan nahi du herritarrek ere ikusi diotela guk ematen genion balio erantsi hori. Euren burua oso modu naturalean kokatu dute ELTZIAN horrek



suposatzen duen inplikazio eta konnotazio guztiekin.

Eltze berriak sortzen eta norbanako zein eragile ezberdinak batzen joan dira. Zabalik al dago oraindik atea?

Helburua sekula ez da eraikina betetzea izango baina atea zabalik dago eta horrela egongo da. Eraikinaren izaerarekin bat egiten duten talde eta norbanakoei bertako parte izateko aukera ematea dugu helburu.

Eltzia oñatiarrena da. Eta guztiei zabalik dago.

JOHANA OLABARRIA / Eltzia ko koordinatzailea

Guztien artean planteaturiko ideiekin osaturiko proiektua izango da

Zein da parte hartzearen papera?

Ezinbesteko tresna da proiektua dauden beharren arabera diseinatu eta batez ere egunerokoan egoki funtzionatu eta bizitza izan dezan. Baina aipatu bezala parte hartzea bitarteko bat da, ez helburua,

Zenbat pertsona dabilta proiektuan?

Lehen elkarrizketekin hasi ginenetik ehundaka pertsonen hitz egiteko aukera izan dugu. Kontutan hartu kultur edo sormen eremu oso anitzeko eragileak ditugula ELTZIA barruan. Aniztasun horrek sortzen du proiektuaren aberastasuna eta konplexutasuna.

Nola baloratzen dituzue parte-hartze saioak?

Saio benetan interesgarriak izan dira. Alde batetik, parte hartzen nahiz sustapen lanetan ari garenontzat herriaren errealitatea hobeto ezagutu eta ulertzeko baliogarriak izan dira.

Zein puntutararte hartzen dira kontutan parte hartzaileen iritziak?

ETEOKo eraikin zaharrerako diseinatu den proiektua parte hartzaile guztien artean planteaturiko ideiekin osaturiko proiektua izango da. Horretarako egin ditugu hainbeste bilera eta lan saio, kide ezberdin guztiek zeresana eta beraien ekarpena egiteko aukera izan zezaten.



Zein metodologia erabili da iritziak batzeko?

Hasieran aipatutako elkarrizketa eta lan saioen metodologiaz gain, hainbat eta hainbat ekimen gauzatu dira azken hilabeteetan: musika taldeen dinamika, gaur egungo erabiltzaileen koordinazio taldea, talde eragilea, udal mahai tekniko eta ekonomikoa, ...

Aurrerantzean aldatuko al da metodologia?

Egokitu bai, baina aldatu ez. Gure lan metodologia elkarlanean dago oinarritua eta hemendik aurrera ere horrela lan egingo dugu.



Oñatiko 107 familiak jasotzen dute Acesma elkartearen Elikagaien Bankuko laguntza

Duela hiru urte sortutako elkarte da ACESMA (Asociación Cubano Extranjera Sierra Maestra). Oñatin bizi diren kubatarrek sortu zuten elkarte, baina beste jatorri batzuetako (Dominikar Errepublika, Kolonbia, Ekuador, Nikaragua, Bolivia eta Bulgaria) etorkinak ere biltzen ditu. Jatorri ezberdinetako pertsonen sustraiak eta kultura bizirik mantendu, eta integrazioa bultzatzeko asmoz zehar, baina, duda barik, Elikagaien Bankua da elkarteak martxan jarri duen proiektu inportanteena, krisiaren ondorioz gero eta jende gehiago bizi delako pobrezia egoeran. Oñatiko 107 familiak (293 pertsona), etorkinak eta bertakoak, jasotzen dute gaur egun Acesmaren laguntza. Iazko irailetik hona, herriko zenbait saltokik (Super BM, Dia, Eroski, Sustrai eta Oñati fruta dendak, eta Garay harategia) ere kolaboratzen dute Acesmarekin.



Udalak Ibarran utzitako
lokal batean dago Acesma
elkartearen elikagaien bankua

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen
administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati





**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Urtebete pasa da Jakien Laguntza Programa abian jarri zenutenetik. Ze balorazio egiten duzue?

Momentu zailak izan ditugu, baina une honetan proiektua sendo dagoela esan daiteke. Ekainetik Udalak Ibarran utzitako lokalean gaude; Fagor Industrialek bi hozkailu handi eman dizkigu eta, beraz, azpiegitura mailan ondo gaude. Falta zaigun bakarra furgoneta bat da, jakien garraioa egiteko, gaur egun geure autoetan egiten dugu eta.

Zenbat lagunek jasotzen dute laguntza?

Une honetan 107 familiak (293 pertsona). Gehienak etorkinak, baina Oñatiko familiak ere badaude, udal Gizarte Zerbitzuen sailetik bideratuta. Egoera ekonomiko larrian dauden familiak dira denak.

Nondik lortzen dituzue elikagaiak?

Asteartero, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzatik 'Azken Minutuko' produktuak (frutak, barazkiak, yogurtak, enbutidoak...) jasotzen ditugu, eta hilean behin biltegikoak: arroza, lekaleak, olioak, kontserbak...

Bestalde, urtean hiru aldiz Europar Batasuneko Jakien Bankutik kargamentu bana jasotzen dugu. Iaz, adibidez, 12.300 kilo jaso genituen.

Bestalde, iazko irailetik hona, Oñatiko zenbait denda eta merkatalgunek ere (Eroski, Super BM, Dia, Sustrai eta Oñati fruta dendak, eta Garay harategia) kolaboratzen dute gure proiektuarekin. Astean birritan pasatzen gara bertatik, eta daukatena ematen digute. Iazko irailetik hona 3.120 kilo jaso ditugu.

Oso inportantea da Oñatiko saltokiekin dugun elkarlana. Azken batean, saltzeko ez, baina kontsumitzeko moduan dauden produktuak beharra duten pertsonen ematen dizkiegu eta, bide batez, birziklapen lan inportantea egiten dugu.



ACESMAKO LANTALDEA

Elikagaien Bankuan laguntzeko boluntarioak behar ditugu

Bizi dugun krisi garaia kontuan hartuz, oso inportantea da Acesma elkarte elikagaien bankuaren bidez egiten ari den lana. Baina dedikazio handia eskatzen duen lana da, eta Acesma elkarteak gainezka daude. Hamar lagunek lantalde finkoa daukate, baina bolondres edo boluntarioak lortzeko deialdia egitea erabaki dute, lana banatzeko.

Oñatiko elikagaien bankua astearte eta ostiral arratsaldetan zabaltzen da, 16:00etatik 19:30ak arte. Elikagaiak batu, sailkatu, banatu eta dokumentazio lana egin behar izaten da. "Ondo funtzionatzeko 32 lagunek lantaldea beharko genuke" azaldu dute Acesmakoek; "modu horretan, pertsona bakoitzak hilean arratsalde batean egin beharko luke lana. Eta, gainera, Acesmakoak beti egongo gara bertan laguntzeko". Beraz, proiektu honetan laguntzeko prest dauden herritarrek, elikagaien bankura (Ibarran) joan daitezela astearte edo ostiral arratsaldetan (17:30-19:30), edo deitzeko 617963348 zenbakira.

Deialdi honek helburu bikoitza daukala azaldu digu Acesmak: elikagaien bankua sendotzea batetik, eta Oñatiko herritarrekiko harremana eta elkarlana sustatzea bestetik; "gure elkartearen helburuetako bat etorkinen gizarte-integrazioa bultzatzea da, eta horretarako modurik onena da bertako herritarrekin elkarlanean aritzea. Beraz, lortzen badugu oñatiarrak proiektu honetara ekartzea, bi helburuak lortuko ditugu". ■

Beste elkartasun proiektu batzuk ere badituzue esku artean, ezta?

Bai. Alde batetik, Cubako hospitale bat berritzen laguntzeko dirua batzen ari gara. Eta laguntza kontainer bat (erropak, oinetakoak, jakiak...) ere prest dugu Kubara bidaltzeko, Sandy hurakanak kaltetutakoei laguntzeko.

Bestalde, Kolonbiako emakume elkarte batekin elkarlanean, gerrak kaltetutako haurrentzako jantoki komunitario bat egokitze proiektua babesten ari gara, ekonomikoki.

Kultur mailako ekitaldiak ere antolatzen ditugu, eta maiatzaren 24an Ekuadorreko eguna ospatuko dugu

Oñatiko beste elkarte batzuekin ere ari zarete elkarlanean, ezta?

Bai, Acesma elkarte aktiboki parte hartzen ari da proiektu ezberdinetan Oñatiko beste elkarte batzuekin (Herman-soloña, talde feministak, Natur Eskola, ETEOko...). Sare-lan inportantea egiten dela azpimarratu nahi dugu, eta alde horretatik txalotu egin nahi dugu Udalaren lana, aintzat hartzen duelako herriko taldeak egiten dugu lana. Guri, konkretuki, laguntza handia eman digu Udalak, eta eskerrak eman nahi dizkiogu, bereziki alkateari.

Eskerrak eman nahi dizkiogu baita ere Angel Diaz de Monasterioguren Urzelairi,

garaje bat utzi digulako gure elkartearen materiala gordetzeko. Eta eskerrak baita ere, bereziki, Hermandoloña taldeari eman digun laguntzagatik.

Ia ia Udalaren interloktore bihurtu da Acesma, inmigratio gaietan. Nola daude etorkinak Oñatin?

Gure ustez etorkinen komunitateak gauza positibo asko ematen dizkio Oñatiko herriari. Egia da, badagoela sektore bat, kosta egiten zaiona oraindik integratzea, eta, beraz, lan handia egin behar da sektore hori bideratu eta integratzeko. Baina lan hori Udalarekin batera egin behar dugu. ■

TXAKURRAREN EGUNA

ospatuko da Oñatin maiatzaren 18an

Zurtz elkarteak antolatuta

► Mugikortasun arazoak dituzten maskoten jabeei laguntzeko elkarte da ZURTZ



Animaliekiko tratu ona sustatzea da Txakurraren Egunaren helburua

Mugikortasun eta portaera arazoak dituzten maskoten jabeei laguntzeko sortu zen ZURTZ elkarte duela bi urte Agurainen (Araba). Maskotentzako eta, bereziki, txakurrentzako ortopediari buruzko aholkularitza eskaini, eta materiala (arnesak, gupil-aulkiak...) alokatzen dituzte prezio onean. Hitzaldiak eta ikastaroak ere ematen dituzte han-hemenka, eta terapia alternatiboak (akupuntura, homeopatia, flores de bach, hidroterapia, masajeak...) sustatzen dituzte.

Azken batean, beraien maskotari bigarren aukera bat eman nahi dioten jabeei laguntzea da Zurtz elkartearen helburua, elkarteko kideen esperientzietan oinarrituz betiere. Beste modu batera esanda, animalien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko sortutako elkarte da.

Horrez gain, animaliekiko tratu ona eta hauen gizarteratzea sustatzea da Zurtz elkartearen helburua, eta asmo horrekin antolatzen dute, besteak beste, Txakurraren Eguna. Eta aurten Oñatin antolatzea erabaki dute, elkarteko kide eta lagunetako batzuk oñatiarrak direlako.

TXAKURRAREN EGUNA

Oñatiko plazako pilotalekuan

- 11:30 Aurkezpena
- 11:45 Jabe arduratsuak
- 12:00 Ondo hezitako txakurrak
- 12:30 Txakurrek lagundutako terapia erakustaldia
- 12:45 Txakurrek lagundutako ekintzak
- 13:15 Txakurrak txukun (ileapaindegia) eta txakurrak kontrolpean (esterilizazio eta mikrochip kanpaina).
- Arazadon txakurrak
- Mugikortasun arazoak (akupuntura)
- Jokabide arazoak (Bach loreak)
- Osasun arazoak (Fitoterapia)
- 13:30 Txakurrak eta umeak: Gynkana
- 14:30 Amaiera

PATXI ONRAITA
ZURTZ elkarteko kidea



Zer dela-eta zaude Zurtz elkartean?

Hamabost urteko txakur bat daukat, artrosi eta mugikortasun arazoak dituena, eta Zurtz elkartearen berri izan nuenean oso interesgarria iruditu zitzaidan egiten duten lana eta eskaintzen dituzten zerbitzuak: txakurrentzako masajeak, tratamendu naturalak... Beraz, bazkide egitea erabaki nuen.

Zein dira bazkide izatearen abantailak?

Batetik, elkarteak daukan material ortopedikoa erabiltzeko aukera eta, gainera, txakurrak izan dezakeen arazoen gaineko informazioa eta aholkularitza lortzeko aukera. Gainera, elkarteak antolatzen dituen tailer eta ikastaroak ere merkeago ateratzen dira.

Txakurraren Eguna egingo duzue Oñatin. Zertarako?

Elkarteak egiten duen lana erakusteko. Ekitaldi polita izango da animaliak gustoko dituen jendearentzat. Agility probak, txakurren heziketa eta terapia erakustaldiak, ileapaindegiz zerbitzua. Oso atsegina izango da.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIAKOKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

Sdistira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorpuzteko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 beheak | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.sdistira@gmail.com

Lege Soziologia Institutoaren 25. urteurrena ospatzeko kongresu berezia egingo da maiatzaren 21etik 23ra

Mundu osoko 250 aditu etorriko dira Oñatira

Oñatiko Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakundeak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko kongresu berezia antolatu dute. Maiatzaren 21etik 23ra izango da, eta lege soziologiaren arloan munduan diren izenik garrantzitsuenak etorriko dira Oñatira, Europa, Asia,

Australia eta Amerikatik. Guztira 230 lagunek hartuko dute parte biltzarrean. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Arartekoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide fakultateko dekanoa ere bertan izango dira.

Lege Soziologiak orain arte egin duen bidea aztertu eta etorkizuneko norabideak eta erronkak finkatzea izango da kongresuaren helburua. Horretarako, 36 bilera egingo dira hiru egun horietan Oñatin. Sancti Spiritus unibertsitatean ez ezik, udaletxean, kultur etxean eta Pake Lekun ere egingo dira bilera horietako batzuk.

Beraz, mugimendu handia egongo da herrian hiru egun horietan eta, jakina, herriko ostatu, jatetxe, denda eta bestelako zerbitzuek ere nabarituko dute.

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK / maiatzak 25

Botoa postaz emateko eskaerak maiatzaren 15era arte egin daitezke

Maiatzaren 25ean egingo dira Europar Parlamentua berritzeko hauteskundeak. Egun horretan botoa zuzenean emateko zailtasunak dituzten herritarrek korreoz eman ahal izango dute, baina horretarako maiatzaren 15a baino lehen egin behar da eskaera, edozein posta bulegotan, nortasun agiria aurkeztuz.

Zenbait alderdi politikok ere laguntzen dute tramite hori betetzen. Hala, Oñatiko Euzko Alderdi Jeltzaleak jakinarazi digu egunero irekitzen dutela bulegoa goizez (11:30-12:30) eta arratsaldez (18:00-19:30), posta bidezko botoak tramitatzeke.

Ia bi kiloko amuarraina

Honek ez du izango Bidasoa ibaiaren harrapatu berri duten denboraldiko lehenbiziko izokinak adina sona, baina hau ere ikusgarria da: 1.750 gramo eta 58 zentimetrotako amuarrain ederra. Mikel Aierbe Ugarte gazteak harrapatu zuen Madalenako presa inguruan. Pita korapilatu zitzaiohalakoan tiraka hasi eta han azaldu zen arrain puska. Ander Gartzia, Markel Guridi eta Oier Iturricastilloren laguntzarekin lortu zuten ateratzea.



San Martingo etxebizitzaren Plan Partzialaren aldaketari alegazioa aurkeztuko dio EAJk

EAJ-PNV udal taldeak adierazi du San Martingo etxebizitzaren Plan Partzialean Bilduk egin nahi duen aldaketaren aurkako alegazioa aurkeztuko duela, “ez duelako legedia betetzen”. Beharrezkoa bada, beste instantzia batzuetara jotzeko aukera ere aztertuko dute jeltzaleek.

EAJk argi utzi nahi izan du alegazioa ez dela San Martinen ari diren eraikuntza enpresen aurkakoa; “enpresek beren interesa defendatzea legitimoa da, eta gure babes eta errespetua izango dute beti, enplegua sortzen dutelako eta ekonomia sustatzen laguntzen dutelako”. EAJren alegazioa oñatiar guztien interesen eta legezkotasunaren aldekoa dela esan du Lourdes Idoiaga bozeramaleak.

Gogoratu, San Martingo urbanizazioa amaitzeko merkatu libreko 89 etxebizitza eraikitzea falta dela, 2006ko plan partzialaren arabera. Kontua da, orduko planaren arabera etxebizitzak oso handiak zirela, eta ez direla bideragarriak gaur egungo egoeran. Horregatik, Udalak eta enpresek hitzartu dute 49 etxebizitza gehiago eraiki ahal izatea, baina txikiagoak, eraikigarritasun osoa aldatu barik. Trukean, Udalak baldintza batzuk jarri ditu: besteak beste, eraikiko diren 132 etxebizitzak prezioa mugatukoak (VPOx1,7) izatea; hau da, 220 mila euro inguruan saltzea.

ALEGAZIOAREN ZERGATIA

EAJk dio, legedia aplikatuz, San Martinen eraikiko diren 49 etxe gehiago horietatik %65 (32 etxebizitza), babes ofizialekoak (130 mila euroko prezioarekin) izan behar direla. “Hala, etxe horietako bat erosteko aukea duten 32 familiak 90.000 euro aurreztu ahal izango dute, eta gainerako 100 etxebizitzak 220 mila eurotan (VPOx1,7) salduko lirake. Oñatiarrontzat askoz mededegarriagoa eta justuagoa da gure proposamena” azaldu du Idoiagak.

Bilduk egindako salaketari ere erantzun dio EAJk. Idoiagak azaldu du San Martingo lursailen salmenta ez zela desjabetze prezioan egin, adostutako prezioan baizik; “gainera, salmenta horri esker finantziatu ahal izan genuen San Martin egoitzaren birmoldaketa eta bertan Unitate Psikogeriatriko berritzaileak martxan jartzeko lanak”.

EAJren udal taldeak adierazi du bere helburua ez dela gai honekin polemika sortzea, oñatiarren interesak defendatzea baizik; “oposizioko alderdi gisa, gobernuaren kudeaketa kontrolatzea eta herritarren interesak defendatzea da gure betebeharra”.

lbigailu guztien elkarbizitza bultzatu behar da

Oinezko, txirrindulari eta autoek elkarrekin ibiltzen ikasi behar dute. Horretarako

Nozio hauen artean, gero eta ugariagoak diren seinaleen esannahia ezagutzea beharrezkoa da elkarbizitza horretarako.

AHOLKUA

Bidegorrien erabilera egokia



Herbereko hainbat hiritan bizikletak, biztanleak baino gehiago dira eta esaterako, Amsterdam eta La Haya moduko hirietan, joan-etorrien %70 bizikletaz egiten dira. Bizikletan ibiltzea erakargarriagoa eta seguruagoa izan dadin, Herbereetan dagoen bidegorri sarea oso handia da. Bideak oso ondo markatuta daude. Zoru leun eta lauak dituzte, seinaleztapena eta argiztapena ere oso zainduta dago eta bidegorrien zabalera ere, oso zabala da joan etorria eta aurreratzeak erosoak izan daitezen.



Zirrara berezia piztu zuen apirilaren 26an Kantoikriten egitasmo berriak. Oñatin eta Euskal Herrian aurrenekoz, Gold Sprints (arrabola gaineko pinoi finkodun bizikleten arteko esprintak) delako lehiaketa jarraitu asmoz, jendez bete zen Gaztelekua. Guztira 38 partehartzaile izan ziren eta hasierako kanporaketetan 500 m.-ko sprint-ak egin ostean finala 1000 m.-tara jokatu zen. Finalean, Antton Zubia eta Jon Ander Arakama Beasaindarrak neurtu zituzten indarrak eta garaipena azken honentzat izan zen.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
 • Administrazioa • Haziendarakina
 • Informazioa • Trafikorekina
 • Salmenta • Herentziak, eta abar



Izena: Juanjo Sagarazu
Ogibidea: Medikua

Zer da bizikleta zuretzat?

Nire eguna hobetzeko tresna zoragarria bat da, benetan.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Duela 20 bat urte hasi nintzen, eta ez nintzen lehenago hasi, ez zegotelako ondo ikusia medikua bizikletan ibiltzea. Gainera, euria ere aitzaki bezala jartzen nuen, baina, poliki poliki, beldur horiek uxatu nituen. Gaur egun, lanerako, aisialdirako edota erosketak egitera joateko erabiltzen dut.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Osasun aldetik oso mesedegarria da, ibiltzea edo igeri egitea bezalaxe. Bestalde, herri barruan azkarrago ibiltzeko aukera ematen du, aparkatzeko arazo barik.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Gauza bat azpimarratuko nuke: ahulenarekiko errespetua. Guk, bizikletazaleok oinezkoekiko, eta kotxe edo moto gidariekin bizikletarekiko.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Etorkizun oparoa ikusten diot. Gero eta jende gehiagok erabiliko du, ikusi egiten direlako bizikletak dauzkan abantailak.

Maiatzak 14an, Kultur Etxean

Filipinetako oporraldia, bizikleta garraiobide bezala erabiliz

Bada bizikleta eguneroko garraiobide eta aisialdirako erabiltzeaz gain, bidaiatzeko ere bi gurpildunetako tramankulu hau erabiltzen duen pertsonarik. Geroz eta zale gehiago bizitza estiloa da eta horren adibide dira esaterako Aurora Segurola eta Ruben Segura bizikleta zaleak. Bikote honek bizikletan egin zuten Filipinetarako bidaiaren berri emango digute Maiatzaren 14an Kultura Etxean. Bi abenturazale hauen bidaia interesgarriaren ikus-entzunezkoaz gozatu eta beraiekin hitzegiteko aukera ere eskainiko digu hitzordu honek. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da Kultur Etxeko zine aretoan.



Filipinetan zehar egindako bidaiaren irudi bat.

Merkatua >

Kasko ikusezina Hövding



Hövding kasko ikusezina segurtasunerako tendentzien errege bilakatu da azken hildateotan. Suediako diseinu eskola batean asmatu dute eta autoetako airbag-en funtzionamendua dauka. Erorketa dagoen kasuetan soilik zabalitzen da. Horretarako sensore berezi batzuk erabiltzen ditu.

Bideoa:

<http://vimeo.com/43038579>

Prezioa:

399 € (gutxi gora behera)

caravanas  **oñate**

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Ondutua zabaliztea, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Ondutua zabaliztea, 25 • Tel.: 943 78 65 65
Atzeko kale, 32 (erakusketak)

Uda Kirol Kanpainarako izen-ematea zabalik

Udalak antolatuta uztaila eta abuztuan zehar egingo den Uda Kirol Kanpainarako izen-ematea maiatzaren egingo da. Aurten ere zozketa bidez antolatuko da izen-emate ordena. Zozketan parte hartu ahal izateko, kiroldegiko harreraren dauden inskripzio-orriak bete behar dira. Maiatzaren 12 eta 13an (09:00-13:30 eta 15:00-19:00) eta maiatzaren 14an (09:00-13:30) entregatu beharko dira kiroldegian bertan. Inskripzio orri bakoitzean gehienez ere hiru haurren izena jarri ahal izango da, eta orri bakoitzari zenbaki bat emango zaio zozketarako. Haur bat ezin da inskripzio orri batean baino gehiagotan egon.

Maiatzaren 12-13an bete behar dira zozketan parte hartzeko izen-emate orriak

huru pertsonen izen-ematea. Maiatzaren 19tik 23ra bitartean egingo dira behin betiko izen-emateak. Zozketan egokitutako egunean eta orduan etortzerik ez duenak txanda galduko du, eta zerrendako azken lekura pasako da. Izena ematera joatean, inskripzio orria datu guztiekin ondo beteta eraman behar da. Ordainketa ere izena ematerakoan egin behar da.



► IKASTAROA

Desfibrilagailua eta bihotz-biriketako bizkortze ariketak

Udaleko Kirol zerbitzuek antolatuta, desfibrilagailu automatikoa erabiltzen eta bihotz-biriketako bizkortze ariketak egiten ikasteko tailerra egingo da maiatzaren 15ean (19:00-21:00) Zubikoa kiroldegian. Plazak mugatuak (8-25) izango dira. Kirol talde ezberdinak entrenatzen ibiltzen diren pertsonak izango dute lehentasuna. Horiekin betetzen ez bada, interesa duen edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. Maiatzaren 12ra arte dago zabalik izen-ematea kiroldegian (943716375 / zubikoa@oinati.net). Ikastaroa doan da.



ZUMBA

dantza eta aerobika uztartzen dituen fitness jarduera



Kiroldegia fitness arloan eskaintzen duen nobedadeetako bat da Zumba. Zulai Plazaola aritzen da irakasle edo *coach* lanean.

Zer da Zumba?

Aerobika eta dantza uztartzen dituen jarduera. Kirola egiteko beste modu bat, oso dinamikoa, alaia eta dibertigarria. Musika modernoaz baliatuz (funky, street, disko, latinoa...) koreografia errazak pres-tatu eta gorputz atal guz-tiak mugimenduan jartzen ditugu.

Ze onura ditu?

Asko, bai fisikoki eta baita mentalki ere. Osasun kardiovaskularra hobetzeaz gain, kaloriak erretzeko oso egokia da. Koordinazioa hobetu eta muskuluak tonifikatzen ere laguntzen du. Bestalde, azpimarratuko nuke estresa kentzeko ere oso ona dela; oso dinamikoa da, beti gauza desberdinak egiten ditugu, eta hori oso osasungarria da mentalki. Autoestima igotzeko oso egokia da.

Zenbat saio egiten dituzue astean?

Ordubeteko bi saio, astearte eta ostegunetan 20:15etan. Saioaren azken aldera tonifikazio pittin bat eta abdominal batzuk ere egiten ditugu.

65+ programa jarri dute abian kiroldegian

65 urtetik gorako pertsonei zuzendutako ekintza programa berezia egongo da maiatzean Zubikoa kiroldegian, bertako zuzendaritzak eta Egoitek kirol zerbitzuek antolatuta. Hileko ostiral guztietan ekitaldi bana egongo da (ikus egitaraua).

Eskaintza zabal eta egoki bat eginez, adineko pertsonei artean jarduerak fisikoa egiteko ohitura sustatzea da programaren helburua. Maiatzeko ekintza guztiak dohainik dira. Kiroldegiko harreraren edo Pake Leku elkartearen eman behar da izena parte hartzeko.



EGITARAUA

- **MAIATZAK 9 (10:00):**
TEKNIKA OSASUNTUEN TAILERRA:
Pilates eta Gimnasia Hipopresiboa
- **MAIATZAK 16 (10:00):**
DANTZA TAILERRA.
- **MAIATZAK 23 (10:00):**
FITNESS GELA 3. ADINEAN.
Kiroldegiko gimnasioan dauden makina erabiltzen eta nola entrenatu behar den ikasteko.
- **MAIATZAK 30 (10:00):**
IBILALDI OSASUNTUUA herrian zehar taldean.



■ Hastapeneko Patinaje ikastaroa helduentzat

Egoitek kirol zerbitzuek antolatuta, helduentzako hastapen mailako Patinaje ikastaroa egingo da, maiatza eta ekainean zehar, astearte eta ostegunetan, 18:30etan, Larrañako pilotalekuan. Talde berria osatuko da. Prezioa: 30,52€ (45,78€ bazkide ez direnek). Informazioa eta izen-ematea kiroldegian.

■ Hastapeneko Running ikastaroa helduentzat

Poliki poliki, taldean eta monitorea baten laguntzarekin, korrika egiten hasi nahi dutenentzat hastapeneko Running ikastaroa egingo da maiatza eta ekainean zehar kiroldegian, astelehen eta asteazketan, 18:15etan.. Prezioa: 30,52€ (45,78€ bazkide ez direnek). Informazioa eta izen-ematea kiroldegian.

► FITNES ZERBITZU BERRIA KIROLDEGIAN

SGA (Streching Global Aktiboa) luzaketa ariketak egiteko metodo berria

Fitnes arloko zerbitzu edo jarduerak berri bat eskainiko du Zubikoa kiroldegian Egoitek enpresaren eskutik. **SGA** (Streching Global Aktiboa) du izena, eta luzaketa ariketak egiteko metodo berria da. Gure gorputzeko gihar edo muskuluak luzatu eta lesioak prebenitzeko teknika berria.

SGA teknikaren bidez gorputzeko muskulu-kateak luzatzen ditugu, modu aktiboan eta globalean, postura osasuntsuak, denbora eta arnasketa ariketak konbinatuz. Beraz, luzaketak egiteko modu tradizionala baino askoz eragingarriagoa da eta onura gehiago ditu teknika berri honek.

Adin guztietako jendearentzat da gomendagarria; bai kirolarientzat, eta baita gorputz atal ezberdinetako minak eta lesioak prebenitzeko ere.



MAIATZAREN 9AN teknika berri hau probatzeko tailer teoriko-praktikoa egingo da, eta hilaren 13tik 16ra ate irekiak

TAILER PRAKTIKOA ETA ATE IREKIAK

SGA teknikaren metodologia ikasi eta bertatik bertara ezagutzeko, tailer teoriko-praktiko bat egingo da Zubikoa kiroldegian maiatzaren 9an, 17:00etan. Interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

Bestalde, maiatzaren 12tik 16ra saio irekiak egingo dira kiroldegian. Hilaren 13an (16:00 eta 18:15), hilaren 14an (10:15 eta 20:15); hilaren 15ean (16:00), hilaren 16an (10:15 eta 20:15). Jarduera berria probatzeko aukera egongo da, doan.

Gero, maiatzaren 19tik aurrera zerbitzua martxan jarriko da kiroldegian, ordutegi aukera ezberdinekin: 10:15 (asteazken eta ostiralean), 16:00 (astearte eta ostegunetan), 18:15 (astearteetan) eta 20:15 (asteazken eta ostegunetan). Astean saio bat edo bi egiteko aukera egongo da. Egun bat eginez gero, 17,80€ balio du (hileko?) (22,90€ bazkide ez direnek), eta astean bi saio eginez gero, 35,60€ hileko (45,80€ bazkide ez direnek).

ALOÑAKO X. IGOERA

Ionut Zinca eta Ana Conde irabazle Aloñako maldetan

► **Iñigo Lariz (27:57) eta Montserrat Vazquez (37:42) izan ziren azkarrenak Bellotza eta Buetraitz arteko gaueko lasterketa bertikalean**

“Asko sufritiba, baina gustora”. Horixe zen joan den igandean Aloñako Igoeran parte hartu zuten gehienek sentimendua. Korrikalariei asko gustatu zitzaion edizio bere honetarako prestatutako ibilbidea, eta amaiara ezinhobe eman zitzaion Aloñako Igoeraren 10. urteurrenari.

Ostiralean hasi zen urteurrenaren festa, Bellotza eta Buetraitz arteko gaueko lasterketa bertikalarekin (2,7km eta 720m.ko desnibela). 70 lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lariz izan zen azkarrena (0:27:57), Agustí Roc (28:06) eta Ionut Zincaren (28:44) aurretik. Emakumezkoetan Montserrat Vazquez (37:42), Nerea Amilibia (38:28) eta Maddi Arrazolak (38:40) osatu zuten podiuma. Oñatiarren artean Joseba Molinero (30:50) eta Maite Zabaleta (39:29) izan ziren azkarrenak.

Larunbatean kirolari ezagunen arteko desafioa jokatu zen, korrika eta bizikletako modalitateak uztartuz. Zoritarrez, Iñigo Gabiria parapentelariak ezin izan zuen hegan egin eguraldi baldintza eskasengatik. Azkenean, Jon Odriozola (korrika Oñatitik Aloñara) eta Txomin de Vega (bizikletan Aloñatik behera) bikotea izan zen azkarrena.

ZINCAREN laugarren garaipena

Igandea argitsu esnatu zen eta mendi lasterketa festa ederraz gozatu ahal izan genuen. Danera 275 lagunek amaitu zuten 22,6 kilometro eta 2020 metroko desnibel metatua zeukan lasterketa gogorra, eta faborito nagusiek ez zuten hutsik egin. Gizonezkoetan Ionut Zinca eta Imanol Goñik elkarrekin egin zuten gorako bide osoa, baina beherakoan martxa bat gehiago sartu zuen errumaniarrak, eta laugarren aldiz irabazi zuen Aloñako Igoera (2:00:04) denborarekin. Goñik (2:00:39) eta Jokin Lizeagak (2:02:58) osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan erraz nagusitu zen Ana Conde (2:31:57); Alicia Olazabal (2:51:40) eta Andrea Gilek (2:53:13) osatu zuten podiuma. Oñatiarren artean, Joseba Molinero (2:15:32), Iokin Garai (2:15:34) Asier Alonso (2:19:44), Maite Zabaleta (3:06:59), Marije Zubizarreta (3:12:54) eta Maite Anton (3:14:33) izan ziren onenak. Zorionak guztiei eta antolatzaileei.



Zinca eta Goñi Urteagainen gora



Ana Conde helmugan sartzen



Iñigo Lariz, Joseba Molinero eta Maite Zabaleta igoera bertikalean



Desafioan parte hartu zuten kirolariak. Iñigo Gabiria falta da.



Ezkerrean, Aloñako Igoeraren antolatzaile taldea

Eskuman, oraina arteko hamar edizioak egin dituzten koorrikalariak: Josean Larrea, Iban Guridi, Manolo Morente, Andoni Elosua, Koldo Urrestarazu, Mikel Madinagoitia eta Vicotr Luis de Pedro





Mikel Palacin Linaresko podiumean, eta borrokaldiko une batean, fraka zuriz

Mikel Palacin Espainiako txapelduna Kenpoan

Mikel Palacin 'Pala' birritan igo zen podiumera apirilaren 26an Linaresen (Jaen) jokaturako Espainiako Kenpo Txapelketan. Mikel txapelduna izan zen 'Kontaktua Puntura' (*Combate al Punto*) izeneko modalitatean, eta azpitxapelduna 'Kontaktu Jarraituan' (*Combate Continuo*), +85 kiloko kategorian, gerriko berde artekoen mailan. Kata txapelketan 8. sailkatu zen.

Emaitza bikainak, duda barik, kontuan hartuz orain dela bi urte hasi zela Mikel kenpoa praktikatzeko.



OÑATIKO KENPO TALDEA

Karatearen barruan dagoen arte martziala da Kenpoa, batez ere auto-defentsan oinarritzen dena. Teknika, azkartasuna, estrategia, indarra eta burua uztartzen dituen modalitatea da. Oso kirol konpletoa da, gorputz-atal guztiak lantzen baitira. Arlo fisikoaz gain, burua ere lantzen da, kontzentrazioa, biolentziarik eza eta lagunekiko errespetua bezalako baloreak lantzen dituen.

Eskoriatzako Kenpo-Atama eskola da kirol honetako erreferentzia Debagoiena

eskualdean, eta bertan hasi zen Mikel, beste oñatiar batzuekin batera, Kenpoa praktikatzeko. Gero, Oñatin bertan sortu zuten Atama-Oñati taldea, Eskoriatzako maisuen babesean betiere. Gaur egun hamabi bat lagun ari dira Oñatiko Kenpo taldean. Astelehen eta asteazkenetan (18:30-19:30) entrenatzen dute Zuazola Institutoko gimnasioan. Beraz, kirol hau ezagutu edo probatu nahi duenak, bertara agertu besterik ez dauka.

Motokros proba jokatu da Oñatin maiatzaren 24an

► **Euskal Herriko CROSCOUNTRY txapelketarako puntuagarria izango da**



Urte askoren ondoren, motoziklismo proba bat ikusteko aukera izango dugu Oñatin berriz ere. Herriko motorzaleak biltzen dituen Narrarte Motor Taldeak antolatuta, Euskal Herriko eta Nafarroako Crosscountry txapelketarako puntuagarria den proba jokatu da maiatzaren 24an. Urrutxu eta Santipillau inguruko zelaietan eta Ulma Handling atzealdeko aldatzetan jokatu da, arratsaldeko 15:00etan hasita. Sei kategoriatan ezberdinetan lehiatuko dira pilotuak, eta tartean izango dira lau oñatiar: Gorka Egaña eta Iñaki Mendizabal Junior mailan, eta Gorka Guridi eta Xabier Arnazi seniorretan.

MENDI IRTEERA / Maiatzak 18

Karrantza haranean barrena

Aloña Mendiko Mendi sailak hil honetan antolatu duen irteera Karrantza haranera izango da, Bizkaia, Kantabria eta Burgos elkartzen diren ingurura, hain zuzen ere. Lanestosan (Bizkaia) abiatu eta Matienzon (Kantabria) amaituko da ibilaldia, Pico del Moro (810 m.) eta Pico del Mazo (823 m.) tontorrak igo ostean. Danera, 14 km. eta 800 m.-ko desnibela, zailtasun barik.



Pico del Moro (810m.)

► **EGUNA:** Maiatzak 18, igandea.

► **IRTEERA:** goizeko 7etan, Korreosen.

► **IZEN-EMATEA:** maiatzak 15a baino lehen, Aloña tabernan. Bazkideak 10€; ez bazkideak 13€; langabetuak 5€.

Arantzazuko Igoera, maiatzaren 10ean

Aloña Mendiko Txirindularitza sailak antolatuta, Arantzazuko 45. Igoera jokatu da larunbat honetan, 1. eta 2. urteko Jubenilentzat. Arratsaldeko 16:30etan abiatuko dira Portalekuan eta Sindika gainean izango dute helmuga. Txopekuan tarteko helmuga, eta Urriagainen mendiko saria izango dute. Hiru oñatiar ariko dira: Julen Umerez, Xabi Aiastui eta Beñat Azkoaga. Guztira 90 bat lagun.



» **HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA**

DOLLYGANS TXAPELDUN

ALBOK hartu zuen mendean (2-1) finalean.
Kopa txapelketan **KALAÑATASARAY** nagusi.



DOLLYGANSek irabazi du aurtengo Beteranoen Herriko Futbol Txapelketa. Apirilaren 5ean jokatu zen aurtengo txapelketako azken jardunaldia, eta final nagusian **Dolly** gailendu zen (2-1) **ALBOK**en aurka, Jon Sanchez eta Roberto Idigorasek sartutako golei esker; Julien Aranburuk egin zuen **Albok**-ena. Partiduko jokalaririk onenaren saria Axibar Urteaga (**Dollygans**) atezainarentzat izan zen.

Dollygansek irabazten duen bigarren txapelketa da; 2007/08 denboraldian ere nagusitu zen, eta 2009/10ean finala galdu zuen.

Bestalde, Kopa txapelketako finalean **KALAÑATASARAY** nagusitu zen (4-0) **BUNDESWEHR**en aurka. Atsedenaldira hutsean berdinduta iritsi ziren, eta goitik behera nagusitu zen bigarrenean **Kalaña**. Talde honetako Jagoba Martinek eraman zuen jokalaririk onenaren saria.

Aurretik, ligako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduan **JOXE** irabazi zion (2-0) **KILI KOLO**ri.

Jende asko batu zen Azkoagainekeo harmailetan azken jardunaldiko partidua ikustera, eta azpimarratzekoa zelai barruan nahiz kanpoan bizi izan zen giro ederra. Zorionak baita ere HFTko antolakuntza taldeari urtean zehar egindako lanagatik. Irailean itzuliko da txapelketa.



GOLEGILE ONENA

'BERE' SARIA
Jokin Biain (Kili Kolo)



ATEZAIN ONENA

Unai Arzamendi (Nandrolona)



JOKALARI BETERANOENA

'Txako' (Txarrixak)



KIROLTASUN SARIA

Igor Gomez (Zorrobero)



ESKER ONEZ Herriko Futbol Txapelketako antolakuntza taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten ondorengo etxeei: ONGI, ONA, XAGUXAR, ITURRI, IZARRAITZ, LUIS, PACO, TXAKETUA, AKER, PORTU, ARKUPE, OÑATI, GALIZIA, BOGA, BIKOITZ eta ARTXUBI tabernak, OSI KIROLAK, LIZARRALDE KIROLAK, MENDIZABAL KIROLAK, ALZU, MAPFRE, SUPER BM, URRUTXI, GERETA ARDOAK, ASTORE, URRUTIA GIZONAK, ARANBURU BITXITEGIA, CARAVANAS OÑATE, SAN MIGUEL Koop., CODORNIU, ALOÑA MENDI k.e., OÑATI IRRATIA eta UDALA.

HERRITARREN
ESKUBIDEEI **BAI**

ehbildu
herrikerabaki

HERRIALDEKO EKITALDIA

Maiatzak 12 astelehena
19:00etan Herriko Plazan

HITZALDIA

Maiatzak 21 asteazkena
"Segurtasuna vs herritarren eskubideak"
19:00 Kultur Etxean

HERRI MAILAKO EKITALDIA

Maiatzak 23 ostirala
19:00etan ONAneko plazan

TROIKAREN
EUROPARI **EZ**

ehbildu
herrikerabaki



Kantu Koraleko Estatuko Sari Nagusia irabazi du GANBARA ABESBATZAK

Urrezko kapitulu berri bat idatzi du Ganbara Abesbatzak bere historiarako, Aitor Biainek zuzentzen duen taldearen goi maila ugerian utziz beste behin ere. Espainiako Kantu Koraleko Sari Nagusian parte hartu zuen apirilaren 26-27an Ejea de Los Caballeros-en (Zaragoza). Txapeldunen lehiaketa izaten da hau, aurreko urtean estatuan antolatzen diren lau lehiaketa nagusietako irabazleek parte hartzen baitute, bi modalitatetan: folklorea eta polifonia. Eta Ganbara Abesbatza bietan nagusitu zen, sari nagusia irabaziz, bigarrenkoz (duela hamar urte ere irabazi zuen, Esteban Urzelai zuzendari zela). Ejeako epaimahaiak oñatiarren lana goraipatu zuten, aurkeztutako errepertorioaren zailtasuna azpimarratuz.

Ganbara Abesbatzak 20 urte betetzen ditu aurten eta, beraz, une ezinhobean iritsi da sari preziatu hau. Hala ere, ospakizunek gutxi iraungo dute, uztailaren 21etik 27ra hitzordu garrantzitsu bat izango baitute: Torreviejako Habaneren lehiaketa. Europa, Asia eta Amerikako 18 abesbatzek parte hartuko dute. Hurrengo urtean Arezzo-ko (Italia) nazioarteko lehiaketan parte hartuko dute. Beraz, badute non gastatu Ejean lortutako 2.000 euroko saria. Zorionak!

‘NATURAN BARRENA’ Potx eta Motx pailazoen lehen diskoa kalean da



POTX eta MOTX (Iosu Zubia eta Amaia Igartua) pailazo oñatiarrek ‘Naturan Barrena’ izeneko lehen diskoa plazaratu dute, bederatzi abestiz osatua. Kanta batzuk beraiek sortu eta idatzi dituzte; besteetarako Oñatiko Bertso Eskolako kideen laguntza izan dute. Modu horretan, pailazoen eta bertsoen munduak gerturatzeke

keinutxo egin nahi izan dute.

Duela hiru urte hasi zuten pailazo ibilbidea, ia nahi gabe, baina poliki poliki ‘ofizio’ari gustua hartu diote. Ederto moldatzen dira haurren artean, eta Oñatin ez ezik, inguruko hainbat herritan ere badabiltza, haurren gustagarri. Taldea ere handitu dute (Itziar Arkauz batu zaie, Setan Basozaina edo Zerraldo Ehiztaria bezalako pertsonaiena eginez), eta dagoeneko bi ikuskizun daukate: ‘Haurtxoen lagun’ eta ‘Naturab barrena’. Maiatzaren 10ean (16:30) San Migel Txiki jaietan ikusiko ditugu.



FLORENTINO SANTOS Portajeko artistak utzi gaitu



Hilabete ere ez da oraindik kultur etxeko erakusketa aretoan ikusi genuela, bere arte-lanen inguruko azalpenak ematen. Ordurako gaixo zegoen, baina uste baino lehenago utzi gaitu Florentinok, Portajeko artistak. Egurra lantzen zen benetako artista. Esku finak eta irudimen handiko gizona zen, eta bere inguruan erotzen zen edozein egur zatiri forma eta bizia ematen abilezia aparta zuen, argazkian ikus daitekeen moduan. Goian bego.

‘URAREN BIDEA’ Parketxearen eskutik

Arantzazu Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatuta, ‘Uraren bidea’ izeneko mendi irteera egingo da maiatzaren 11n. Maiatzeko irteeran Urrexola auzoa eta Orkatzategi mendi eremua ezagutzeko aukera egongo da. Hamar kilometroko ibilaldia izango da, goizeko 9etan abiatuta Arrikruzteko aparkalekuan. Informazioa eta izen-ematea Arantzazu parketxean, 943782894.



MUSIKA ESKOLAKOAK SALOUN

Jose de Azpiazu Musika Eskolak 25 urte betetzen ditu aurten, eta mende laurdeneko ibilbidea ospatzeko antolatzen ari diren ekitaldien artean, elkartrukea antolatu dute Salouko musika eskolakoekin. Apirilaren 11-13ko asteburuan Oñatiko ikasleak izan ziren Tarragonako hiri turistikoan. Asteburu bete-betea izan zuten, musika eta aisialdia konbinatuz. Ostiral iluntzean kontzertua eman zuten, larunbatean Port Aventura izan ziren, eta igandean kalejira egin zuten Salouko Jaime I pasealekua girotuz. Oso esperientzia polita bizi izan dute. Ekainean Salouko ordezkariak etorriko da Oñatira.

UDALEKUAK POTTOKALEKUN

Uribarri auzoan dagoen Pottokaleku zalditegiak 7 eta 14 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako udalekuak eskainiko ditu uztailan, sei eguneko lau txandatan.

Naturarekiko harremanean, zaldian ibiltzen eta zaldia zaintzen eta maitatzen ikasiko dute udaleku hauetan parte hartzen duten gaztetxoek. Pottokak prestatu, pasioak eman, eta beste hainbat aktibitate (jolasak, ipuinak, margoak...) ere egingo dituzte, zaldia ardatz hartuta betiere, adimen emozionala landuz. "Zaldien bidez natura maitatzen eta arduratsuak izaten ikasten dute gazteek, bakoitza bere pottoka zaintzeaz arduratuko baita" azaldu digu Jon Elortzak, Pottokalekuko arduradunak.



7-14 urte arteko gazteei zuzendutako udalekuak antolatu ditu Pottokalekuk

EGUNEKO EGONALDIA EDO BARNETEGI ERAN

Sei eguneko lau txanda eongo dira: ekainak 29-uztailak 4: uztailak 6-11; uztailak 13-18; eta uztailak 20-25.

Udaleketako egonaldia bi modutara egiteko aukera egongo da: eguneko egonaldia, edo barnetegi erakoa. Egunorokoan, neska-mutikoak 10:00etatik 19:00etara egongo dira Pottokalekun. Prezioa, 180€, asteko, otorduak barne.

Barnetegi erako egonaldian, gazteek pentsio osoko erregimenean egon ahal izango dira Pottokalekun sei egunez. Prezioa, 250 euro asteko.

Plaza mugatuak dira. Informazioa eta izen-ematea: 670274461.

Udako ESKULAN eta SORMEN tailerrak



6 eta 12 urte arteko neska-mutikoek aukera berri bat izango dute aurtengo udako oporraldian. Ekainaren 23an hasi eta irailaren 5era bitartean (abuztuko erdiko hiru asteetan izan ezik) eskulan eta sormen tailerrak egiteko aukera izango dute,

eta aldi berean hizkuntzak praktikatu (ingelesa, frantsesa eta gaztelania).

Ugarkaldeko 34an egingo dira tailerrak, goizez (9:00-12:30). Tapiza, artilea, feltroa, paper birziklapena edo estanzazioa bezalako aktibitateak egingo dituzte, eta baita aisialdiko ekintzak ere (ogia egin, jolasak, dantzak, ibilaldiak). Eta beti ere ingelesa edo frantsesa praktikatu. Bertan bazkaltzeko aukera egongo da. Plaza mugatuak. Informazioa: 645499235 (Conchi Moreno) /lanatanalmoreno@gmail.com.





ZURICH

M^{re} del Mar Urrutia Neguvela

Motxan Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK

PERSONAK, LEHIAK, BIKI FLOITATZAK, ARRIAK, PINTURAK LANAK...






DISEÑATZAILA ETA MONTAJATZAILA

SERBIZIOAK KONBINAKUAK 24 ORETA GUTXIAN

ORDENATU 12 H. A. ANTES • ZORROZKORTU • GUTXIRAK

695 78 91 04 - 943 84 47 77

MAIATZEKO AGENDA

maiatzak 18 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'LUIS VIL Y LA MALA CRIANZA'

90. hamarkadatik dabil Luis Vil musika munduan talde ezberdinetan, eta bakarlari moduan 2003tik aurrera, Nick Cave, Leonard Cohen eta Tom Waits bezalako musikarietan oinarritutako soinu akustiko-agoak jorratuz. Bost disko ditu, Franco Battiato bertsioneatuz egindakoa barne. Australiar estiloko rock doinuak ere entzun daitezke bere lanetan. Musikaz gain, bideoklipak eta laburmetraiak ere egiten ditu (www.luisvil.net). *Igandea, 19:30.*



maiatzak 25 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'THE NORTHAGIRRES'

Urretxuko taldea da, 2012an sortua Iñigo Agirrebalategiren (The Hot Dogs eta Muturbeltz) ekimenez. Folk-rock amerikar estiloko musika egiten dute, Neil Young akustikotik gertu, eta Rolling Stones-en rock estiloko abestiak ere egiten dituzte. Disko bat plazaratu zuten iaz, arrakasta handia lortuz. *Igandea, 19:30.*

● BERTSO SAIOAK

Maiatzaren 25ean Eskolarteko Bertsolari txapelketako finala jokatu da Arrasateko Amaia antzokian (11:00). Bertan parte hartuko du Oñatiko bertso eskolako Maider Arregik. Bestalde, maiatzaren 21ean eta 28an Ahozkoatasuna eta Bertsolaritza saioak izango dira Santa Ana aretoan (17:00). Ikasturtean zehar herriko ikastetxeetan bertsolaritzaren inguruan egindako lana erakutsiko dute.

● Txakur erakustaldirako izen-ematea

Aurten ere txakur erakustaldia antolatuko dute Olakua auzoko jaietan. Bertan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da Mimau albaitaritza zentroan, maiatzaren 19tik 31ra.

● URGAIN Ikastetxearen Eguna

Maiatzaren 24an herriko sare publikoko ikastetxeek Urgain Eguna ospatuko dute. Arratsaldean, 17:00etatik 20:00ak arte herri kirolekin lotutako jolas parkea egongo da foru enparantzan. Jaialdia borobiltzeko, Urgain-Zuazola-Larrañaren 50. urteurrena ospatuz, Institutoko ikasle izandako musikariekin kontzertua egingo da Zuazola institutoan. Besteak beste Txuletons taldeak joko du.

HITZALDIA / maiatzak 13

maiatzak 13 'ELIKADURA OSASUNTSUA: bere garrantzia eta gaur egungo obsesioa'

Hezkuntza Mahaiak antolatuta, elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia emango du Amaia Diaz de Monsterioguren dietistak hilaren 13an, asteazkena, Bidebarrieta 18ko gelan, 18:15etan. Haurrek elikadura ohitura egokiak txikitik barneratzeko klabeak emango ditu Amaiak. Aurrez izena eman behar da, maiatzaren 9a baino lehen: 943 037 700 (ainhoa.Moiua) / ainhoa@oinati.net. Zaintza zerbitzua eskainiko da ludotekan

ERAKUSKETA / maiatzaren 25era arte

'Liburua, bigarren irakurketa' Xabier Egañaren eskulturak ikusgai Arantzazun



'Iltzatutako liburua' eta
'Inkulturraren kontrako
barrikada' artelanak

Liburuaren inguruan Arantzazuko frantziskotarrek eta bertako Adiskideen Elkarteak eta Arantzazu Gaur fundazioak antolatu duten ekintza programaren barruan, Xabier Egaña (Areeta, 1943) eskultorearen 'Liburua, bigarren irakurketa' izeneko erakusketa dago ikusgai. Liburuekin izan duen harremana islatu nahi du Egañak, objektu ezberdinekin jolastuz (iltzeak, egur zatiak, ispiluak, burnia...) Dadaismoan bezala, zentzu, esanahi eta kontzeptuz betetako artelanak sortzeko.

Maiatzaren 25era arte egongo da ikusgai erakusketa, Gandiaga Topaguneko Laorga aretoan, larunbat, igande eta jai egunetan, goizez (11:00-14:00) eta arratsaldez (17:00-19:00). Gainera, maiatzaren 10ean eta 24an (12:00etan eta 18:00etan) artistak berak gidatutako bisitak egiteko aukera egongo da. Sarrera doan.

► AUZOETAKO JAIXAK

► SAN MIGEL TXIKI JAIXAK / MAIATZAK 9-11

MAIATZAK 9: 19:00 Txorimaloak auzoko kaleetan, txistulariek lagunduta; 19:00 Ardo eta gazta dastaketa txosnagunean; 19:00 Trikitixarangak kalea girotuko du; 20:00 Pizza postua txosna gunean; 22:30 Rock kontzertua: 'Gela berezia', 'Ixilik' eta 'Malenkonía'.

MAIATZAK 10: 12:00 Umeentzako marrazki konposaketa. Ondoren, Pizza tailerra; 12:00 Salda eta txorizo dastaketa auzoko elkarteetan; 12:00 II. Esaera Zaharren txapelketako kanporaketak; 16:00 Alberto Arregiren omenezko mendi bizikleta trabesia (28km.); 16:30 Potx eta Motx pailazoak Kanpantxon; 17:00 Esaera zaharren lehiaketako finala; 17:30 Herriko artisauak kale zaharreen; 18:30 Taloak, txorizoa eta sagardoa txosna gunean; 19:00 Txorimaloak auzoan trikitilarek lagunduta; 19:00 'Behi Bi Blues' taldearen kontzertua Maiatzak 1 plazan; 20:30 Erromeria, Miren, Agur eta Oierrekín; 23:00 Gozo-goza.

MAIATZAK 11: 12:00 Auzoan hildakoen aldeko meza; ondoren, auzoko emakumeentzako luntxa; 13:00 'Kantuz kantu' auzoko tabernetan, Ganbara Abesbatzaren eskutik; 14:30 auzo bazkaria; 16:30 MUS txapelketa; 19:00 Oñatz taldeko gaztetxoaren saioa; 19:30 Bertso saioa. Ostein, afari merienda; 22:00 Karaoke ibiltaria auzoko tabernetan; 24:00 Zozketa eta jaien amaiera.

► KASABLANKAKO SAN ISIDRO JAIXAK / MAIATZAK 16-18

MAIATZAK 16: 18:00 Isidrotxo basurdearen jeitsiera eta poteo herrikoia jaiei hasiera emateko. Lore eskaintza San Isidrori; 18:30 Txorimaloak eta kalejira Musika Eskolakoek girotuta; 20:00 Rock Metal Jaialdia: 'Alex Caporuscio', 'Izu nauk' eta 'Malaria'. 24:00 Su artifizialak.

MAIATZAK 17: 12:00 Haur Jolasak; 14:00 Auzo bazkaria; 16:15 MUS txapelketa; 17:00 Poniak eta txahaltxoak; 19:30 Olagarro eta sagardo dastaketa.

MAIATZAK 18: 12:00 San Isidroko Meza nagusia; 12:30 Kalejira Musika Eskolako ikasleekin; 13:00 Oñatz taldeko gaztetxoaren saioa; 13:30 Herri kirolak eta sagardo dastaketa; 14:00 Auzotarrek eskainitako luntxa eta erromerixa (kasablankakojaiak.com)

► ERREKALDEKO JAIXAK / MAIATZAK 30 - EKAINAK 1

MAIATZAK 30: 19:00 Itxaflero jaurtiketa eta txorimaloak. 19:30 Txorizo eta sagardo dastaketa; 20:00 Garagardo feria; 21:30 Kontzertua: 'Bagauda', 'Screamers the Sillers', 'Kolpatu' eta 'DefConDos'. **MAIATZAK 31:** 11:00 Puzgarriak; 13:00 Jai batzordearen bazkaria; 16:00 Gotibera lasterketa; 16:30 Puzgarriak; 19:00 Bertzio kontzertua; 22:30 Kontzertua: 'Bi bala' eta 'Trikimailu'; 04:00 Jokuak.

EKAINAK 1: 12:00 Auzoan hildakoen aldeko meza parrokian; 13:00 Oñatz taldeko dantzarien erakustaldia; 14:30 Auzo-bazkaria; 16:30 MUS txapelketa; 18:30 Bertso saioa. Ondoren, zozketa eta jaiei amaiera.



Naxo Santos

HERRI KIROL APUSTUA egingo dute Asentzioko jaietan

Azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere herri kirolek leku berezia izango dute Murgiako jai egitarauan. Hala, herriko hiru bikoteraren arteko apustua jokatu da trontzan eta segan. Aurrena 15 ebaki egin beharko dituzte trontzarekin eta, ondoren, 45 minutura arteko denbora segan. Serio ari omen dira prestatzen. Jokoa ez omen da ohorea bakarrik egongo.

Bestalde, Manex Urrutia 'Elorrixa' 14 urteko mutikoak harri-jasotze erakustaldia egingo du 50 kiloko harriarekin.

Azkenik, iksmon handia piztuko duen proba bat ere izango da. Oñatiko Herri Kirolen taldeko Igor Urteaga zortzi tonako kamioia mugitzen saiatuko da sokatik tiraka, ondoko argazkian bezala.

Maiatzaren 31n izango da ikuskizuna, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Asentzio ermita inguruetan. Aurretik, goiz partean, Murgia auzoko baserrietako produktu ezberdinak (txakoliña, gazta, okela...) dastatzeko aukera egongo da.



Naxo Santos

Igor Urteaga 8 tonako kamioia mugitzen saiatuko da



Naxo Santos

‘La crisis de la biodiversidad’

MIGUEL DELIBES DE CASTRO

biologo eta zientzilari handiaren hitzaldia Oñatin

Aukera paregabea dugu maiatzaren 17an Kultur Etxean biologo eta zientzilari handi baten hitzaldia entzuteko eta bioaniztasunaren galerari buruz pixka bat gehiago jakiteko.

Izan ere, egun horretan Miguel Delibes de Castro Oñatira etorriko da konferentzia bat ematera, baina jar dezagun testuinguruan hitzaldia eta argi dezagun nor den zientzilari hau.

Gestonatura taldeak antolatu eta Foru Aldundiak diruz lagunduta Tolosan egiten diren “Naturaldia” jardunaldiak aurtien 25 urte betetzen du, eta hori ospatzeko urte guzti hauetan parte hartu duten sona eta itzal handiko hizlarietako batzuk bertan izango dira. Antolatu dituzten ekintzetatik bat aipatuko dugu; maiatzaren 16an Joaquín Araújo, Miguel Delibes eta J.L. Forges-ek emango duten hitzaldi-mahai ingurua hain zuzen ere. Ekitaldi hau aprobetxatuz eta antolatzaileen eskaintzari esker, hurrengo egunean Miguel Delibes Oñatira etorriko da hitzaldi bat ematera.



**AUKERA PAREGABEA
DUGU BIOLOGO
HANDI BATEN
HITZALDIA
ENTZUN ETA
BIOANIZTASUNAREN
GALERARI BURUZ
GEHIAGO JAKITEKO**

NOR DA MIGUEL DELIBES DE CASTRO

Miguel 1947an Valladoliden (Espainia) jaio zen. Biologian doktorea da eta 1978az geroztik CESIC-en (Centro Superior de Investigaciones Científicas) ikerketa-irakasle lanetan dihardu. Bestalde, 1988tik 1996ra bitartean Doñanako Estazio Biologikoan zuzendari lanetan aritu zen. Bere lanarekin erlazioan, prestigio handiko hainbat zientzia-aldizkarietan artikulu ugari argitaratu ditu. Era berean, aspalditik dibulgaziorako liburuak idazten ditu, adibidez Felix Rodriguez de la Fuenterekin “Fauna” entziklopedia egiten kolaboratu zuen. Bere aita zenarekin batera, Miguel Delibes idazle handiarekin, elkarrikketa formatuko liburua idatzi zuen: “La tierra herida ¿Qué mundo heredarán nuestros hijos?”. Berak idatzitakoa da ere “Vida, la naturaleza en peligro” liburua. Sari asko jaso du eta bat aipatzekotan “Nazioarteko WWF Kontserbazioaren Aldeko Merituaren Saria” gogoratuko dugu.

Guregana “La Crisis de la Biodiversidad” hitzaldia eskaintzera dator. Herritar guztiok gonbidatuta gaude, ez galdu aukera!



Olapoton jarri duten informazio-kartela

AUZO LANA ETA IRTEERA GIDATUA OÑATIKO PARKEETAN

Duela hilabete batzuk Oñatiko udalak, nekazaritza eta ingurumen batzordetik, dirulaguntza batzuk aurkeztu zituen ingurumen izaerako ekintzak herrian burutzeko asmoz. Oñatiko Naturzaliak taldeak herriguneko zuhaitziak eta bertako ondarea babestu eta baloreen jartzeko proiektua aurkeztu genuen. Proiektu honetan hiru parke aztertu ditugu: **San Martin**, **Santa Luzia** eta **Olapoto** hariztiak. Zuhaitzi hauek aztertzeke ikuspegi desberdinetatik landuko ditugu; bioaniztasuna, etnografia eta erabilera, besteak beste. Lehenengo fase honetan bertako bioaniztasuna herritarren artean ezagutzera emateko kartel edo informazio-panel handi batzuk jarriko ditugu. Lan hau egiteko herritar guztiak gonbidatzen ditugu, auzolanean panel hauek jarri eta bide batez bertako bioaniztasunari buruz irteera gidatua egiteko igande goiz-pasa. ETORRI NATURA EZAGUTZERA!

Maiatzak 11, igandea, goizeko 9:00etan Natur Eskolan (Olapoto auzoa)

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
S.M.A. S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA | TEL/FAXA: 943 78 14 59
20560 OÑATI (GIPUZKOA) | l.mabar@euskaltel.net
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale berna 8 - 20540 uña
www.sanmiguel.coop



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Maiatzak 12, 13, 21, 22, 30 eta 31,
eta ekainak 1.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Maiatzak 7, 8, 14, 15, 23, 24 eta 25,
eta ekainak 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Maiatzak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta
27, eta ekainak 4 eta 5.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Maiatzak 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta
29 eta ekainak 6, 7 eta 8.

Guardiako taxilariak

MAIATZAK 5 - 11
JOSU LERTXUNDI
663 031 322

MAIATZAK 12 - 18
ANA ORUETA
650 059 999 / 943 53 40 82

MAIATZAK 19 - 25
JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

MAI. 26 - EKAINAK 1
JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

EKAINAK 2 - 8
JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

OÑATIKO TAXI GELTOKIA
943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA
943 400 500

Telefono interesgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikutz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritza943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

MAIATZAK 9
EKAINAK 13
IRAILAK 12
URRIAK 10
AZAROAK 14
ABENDUAK 12

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

MAIATZAK 27

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutxuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
arteana atera behar dira.

Merkatu Txikia

Garaje bat alokatzen da Portu kalean.
Interesatuak deitu 634466353
(16:00etatik aurrera).

Lokala alokatzen da Bidebarrieta kalean
68 m² koa. Telefonoa 943533637.

Urneak zaintzeko prest nago.
Esperientzia daukat eta nork
gomendatua ere bai. Interesatuak deitu:
663764511

Etxebizitza alokatzen da San Lorentzo
auzoan. Berogailua eta igogailuarekin.
656710404

Etxebizitza alokatzen da San Lorentzo
auzoan. 57m². Garajea aukeran.
Interesatu ezker deitu: 610 686 030

Oñati pinua osatzeko. pertsona bat
beharko genukeen bi langile gara.
Interesaturik egonez gero, deitu 653 748
751 (18:00etatik aurrera)

DBH-4 mailako. Matematika eta Fisikako
klase partikularrak hartzeko irakaslea
behar dut. Deitu: 627 912 321

Haur txiki bat orduka zaintzeko Oñatiko
pertsona gazte baten bila gabilzt. Deitu:
652722933

Hektarea inguruko lursaila erosiko nuke,
ortua, frutarbolak eta animaliak jartzeko.
Animalientzako borda baldin badauka,
ezin hobe. 661 770 179

Etxebizitza salgai Olakuan. 3 logela,
jangela, sukaldea eta 2 komun
(berrituak). Igogailu eta beragailuarekin.
180.000€. Deitu: 635 062 479

Etxebizitza alokatzen da Oñatin. 70m².
Bi logela, bainugela bat, sukaldea
jantzita, igogailua, kalefakzioa, armaruak,
balkoia, eguzkitsua eta erdialdean. 657
706 746

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixak

Altzaa-Gomendio-Arzelus-Lizaurtararak

Luis Gomendio Saleses etzan oñatiarra, baiña gure herrixarekin hartu-emun eta zerikusi sakona euki eben. Hainbat urtian Oñatiko alkate izandako **Este-ban Gomendioen lehengusua** zan. Donostian eta Madrillen zittuan bere negoziuak. Erreinuko kapitalian arlo desbardiñetako jente inportante askorekin eukan ezaupidiak eta kontaktuak: ministro, diputadu, enpresarixo, arkitekto, pinttore eta goi maillako beste jauntxo batzuekin. Baldintza horreikin pertsonaje oso egogixa izan zan 1920ko hamarkadan txantxikuarron interesak hiriburuan defendidu eta aurrera atarateko.

Hemen urte horreittan gauzatu ziran bi proiektu garrantzitsutan erabagikarrixa izan ei zan Luis Gomendioen jesiñua. Bata trena honaiño ekartiarena: XX. gizaldi-xaren hirugarren hamarkadiaren hasieran lortu zan hori, 1923an, **Vasco-Navarro** izeneko **trenbidiaren adarra** San Prudentziotik Oñatiraiño aillégau zanian. Bestia bost urte beranduago, 1928xan, unibersidadia izandako ikastetxe zaharrian **bigarren mailako institutua** barriro jarri zanian. Zortzi ikasturtian martxan egon ondoren, gerra zibillaren lehenengo hillabetietan kendu euen, 1936ko agorrian.

Ordurako Luis Gomendio nahikua oñatiartuta eguen, senidiekin beti eduki izan-dako tratuaz gaiñera, Altzibar aldian **Gomendio-enea** izeneko txalet politta 1923an jaso eragin eben-eta. Gerra ostian **Onraitana** izenarekin be ezagutu zan. Bere tarte-kua zan Damian Lizaur arkitekto oñatiarrak moldau otsan planuak eta zuzendu eben obria, orain hurrengo batian gogoraketan geben lez. Goiko argazkixa etxia egin barri-tan ataratakua izango da.

Beste fotografixiak Kale Zaharreko beheko partian daguen etxe ezagun baten atze-kaldia erakusten dosku: sasue batian **Altzatarren etxia** esaten xakon, han bizi izan ziralako XVIII-XIX. mendetan jatorri bizkaitarra eukan **Alzaa** familia ospetsuko hainbat jeneraziño. Altzatarak Gomendiotarrekin senidetu ziran eta Karmen Gomen-dio aittatu barri dogun Damian Lizaurrekin ezkondu zanian, etxe dotore hori hartu euen bizilekutzat. Harrezkero guk **Arkitektuarena** moduan ezauketan geben. Azke-naldi honetan ziharo aldatu da barrutik eta hainbat bizitza egin dira lehen bakarra zan lekuan.

Etxeosteko eskillaran agiri diranak familia tartekuak dira, oñatiarrak gehiexenak; umiak Lizaur-Gomendio anai-arrebak dittugu. Goittik behera eta ezkerretik esku-mara hona euron izen-abizenak:

Goixeneko illaran: **Damian Lizaur Lasa**, arkitektua; **Luis Gomendio Saleses**, donostiar oñatiartua; **Maritxu Arzelus Larrañaga**, Gomendiotarren lehengusua amaren aldetik; **Bizente Arzelus Larrañaga**, aurrekuaren anaia eta Oñatiko medi-kua; **Josefina Sanz Gomendio**, Kale Zaharreko hurrengo etxian, **Santzenian**, bizi zan beste lehengusu hau; eta **X. X.**, **Pilar Lachen** biharbada, behian jarritan daguen Gillermo Arzelusen andria.

Bigarren illaran: **Beatriz Lizaur Gomendio**, Damian eta Karmenen alabia; eta **Karmen Gomendio Larrañaga**, Damianen andria, **Mari Karmen** alabatxua besuetan dakola.

Beheko illaran harmailletan jazarritta: **Jose Migel Gomendio Larrañaga**, abogadu eta politiko ezaguna, eta altzuan bere illobia **Manttoni Lizaur Gomendio**; eta **Gillermo Arzelus Larrañaga**, **Jose Luis** eta **Juan Mari Lizaur** anaiekin.

J. E

Argazkixak Oñatiko udal artxibuan lortu dittugu Izar Salaberriren bittartez. Argibidiak, barriz, Beatriz Gomendio eta Arantxa Zulue-tari zor dostegu. Milla esker danoiri.

Fan dan hilleko aldizkarixan argittaratu geben Erramu eguneko fotografixan beste hiru emakume identifikau ahal izan dittugu: Maria Zubia, Goribar auzoko Antzokua, goixeneko illaran lehenengua ezkerretik kopeta luziakin; Benita Zubia aurrekuaren ahizpia, An-tzokua hau be, bigarren illaran hirugarrena eskumatik; eta Angeles Jauregialzo, Garibai auzoko Paikona baserrikua, beheko illaran laugarrena eskumatik, soiñeko illunarekin. Informaziñua euren alabak eskuratu doskue: Lurdes Iñurritegi, Karmen Azkune eta Nie-ves Egañak, hurrenez hurren. Eskerrik asko.



Arkauz zure etxea da.

GRUPO RK/UZ

ARETXABALETA 1950 - 2014 ARRASATE

60 urte baino gehiago

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

2014-2015

Laneraka Gertu!

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 24 • 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 73 97 65

grupo
amuebladora
mondragonesa



Bisita gaitzazu
konpromezurik gabe.

centro hogar **MUERLES**

Sofa
leku

kaltxoi
leku

BANAK
importa

**Zure etxerako behar duzun guztia,
58 urteko bermea eta
kalitatea duen talde handi
baten eskutik**



Zigarrola 1 • Tel.: 943 71 10 12 • ARRASATE
Zerkaosteta, 3 • Tel.: 943 71 10 11 • ARRASATE